

**JOSE LUIS LIZUNDIA ASKONDO,  
EUSKALTZAINDIAN SARTZEA**

*Abadiñon, Gerediagako Salbadore  
batzar-etxean 2004-VII-23*

## HARRERA

*Abadiño, 2004-VII-23*

*Nekane Alonso,  
Bizkaiko Batzar Nagusietako ordezkaria*

Alkate jauna.

Bizkaiko Ahaldu Nagusia, Gipuzkoako Ahaldu Nagusia.

Euskaltzainburu eta euskaltzainak.

Jaun-andreok!

Arratsaldeon eta ongietorriak etxe honetara, bizkaitar guztion etxea den honetara.

Pozgarria dut oso, gaur hemen, Gerediagako Batzar Etxean berba egitea Bizkaiko Batzar Nagusien lehendakariaren izenean, zorionak emateko Bizkaiko Batzar Nagusietako ahaldua hainbat urtetan zehar izandako kide bati, bera euskaltzain oso bihurtu denez gero.

Guztiok nahi dugu geure etxean onetsiak izatea eta sentitzea, eta horretara nahi izan du Jose Luis Lizundiak ere. Merezi ere bai, jakina! Berak dioenez, ‘abadiñarra’ izateak badakar ezaugarri berezi bat, Bizkaiko erdialdean bizi izatea, eta gure Lurraldearen jakite eta sentitze-maila izugarriak izatea.

Hori dela eta, Bizkaiko Batzar Nagusiak eta beraien kideok harro sentitzen gara, gure arteko bat badelako daborduko Euskadiko hizkuntza erakunde goreneko kide osoa. Zorionak, Jose Luis, bihotz-bihotzez, bizkaitar guztion izenean.

## ONGI ETORRI ABADIÑORA!

*Abadiño, 2004-VII-23*

*Javier Uriarte, Abadiñoko alkatea*

Euskaltzainburu jauna,  
euskaltzain andre eta jaunok,  
herri ordezkari,  
euskaltzale,  
jaun-andre guztioi:  
arratsalde on, eta  
ongi etorrikerik beroena Euskaltzaindiari.

Zazpi lurraldeetatik etorri zarie euskaltzainok gure herrira, «Zazpiak Bat» egiten dabelako zuon Erakundeak, Euskeraren Akademiak.

Batzuk, lehenagotik ezagutuko zenuen Abadiño. Ez da nik neuk esatearren, baina harro gagoz gure herriagaz. Euskal historian 1.051garren urtean agertzen ei da, Errioxako San Millan de la Cogollako agiri batean.

Zuk zeuk, Jose Luis, *Txile* bezalakoa deritxozun herri honetan, iparraldean dagoen auzo honetatik eta hegoaldera dagoen auzora, Araba eta Otxandiozag muga egiten daben Amaitermiñera, badozue zer ikusi eta gozatu.

Gerediagako leku hau, Durangaldeko Batzar Nagusien kokaleku izan zen ehundakak urteetan, 1876an Canovasek euskal foruak kendu arte.

Eta eraikin honen azpian, autopista azpian, hobeto esanda, Traña-Matiena, auzo populatua eta industriagunegaz betea dogu.

Goizeon izan dozue euskaltzainok, gure Udaletxean egin badozue zuon osoko bilkura, *Abadiño-Zelaietaren* erdiko gunea ezagutzeko aukera. Hegoekialderago joan da, *Muntsaratz* auzoa, bertan dagoelarik seguru asko Erdiaroko Bizkaiko dorretxerik ederrena, «Eusko Label»-en goitza nagusia.

Hegoalderago *Alluitz*, *Asiki* eta *Untzillatx* barrenetan *Sagasta* eta *Mendiola* auzo xarmangarriak. Haruntzago Urkiolako Santuarioa, «Euskal Herriko Padua» deitutakoa.

Hurrengoan lasaiago etortera gonbidatzen zaituet, zeren Abadiño ez dago pasealeku, dorretxe eta baserri ederrez hornitua eta, ez eta, hotel eta jatetxe onez ere.

Ohorea da guretzat gure Hizkuntza propioaren Akademia eta bere kideak guregana etortea, hare gehiago, *Traña-Matienako Etxenagusia* baserrian hasi eta hezitako Jose Luis Lizundiaren sarrera ospakizuna hemen, Abadiño-ko lurretan egiteagaitik.

Ni beste auzo batekoa banaz be, *Muntsaratzekoa*, gazte-gaztetatik ezagutzen dogu alkar, orain hogeitaka urte *San Blas Feria* famatuaren barriztatze egitarau eta lanetan, lankide izan ginan.

Jose Luis, hire sekretario postuaz ondo baliatu hintzen, haraz «vespa» zaharraz edo otxocientoscincuentagaz papelak haruntz-honuntz, *La Gaceta del Norten* artikulutxoren bat, alkate karlistakaz ardaur zuria edan ta Partiduko klandestinidadien... Gerediaga elkartearen sortzaileetarikoa, euskara irakasten aintzindari, ezpatadantzaren suspertzaille, nahiz eta Santi Ixundik herriko talderako aukeratu, ez beste batzuen mesederako.

Durangoko Azokaren eragile, 60garren hamarkadatik aurrerako euskal kultur mugimenduaren saltza askotako... *Beittik*, Argiñanok esaten jok, janari tipo guztiek onartzen dabiela perejilla, eta hemen, gure inguruan, joan den berrogei urtean, inor izan badok «ekiña», hasi Garaiko prozesiñotik, Gasteizko Parlamentutik eta Batzar Nagusietatik bueltan Euskaltzaindira bitarte, hori heu haz.

Eskerrik asko eta zorionak Jose Luis adiskide eta lagun... eta laguntzeko prest.

## **EUSKAL KULTURGINTZA 60KO HAMARKADAN**

*Gerediaga-Abadiñon,  
2004.eko uztailaren 23an*

*Jose Luis Lizundia Askondo*

Arratsaldeon senide, euskaltzainkide eta adiskide guztioi. Ongi etorria jaso duzue, Euskaltzaindiaren ageriko batzarretan ohi bezala, tokian tokiko herriko alkate jaunarengandik, gaurkoan eta hemen, Abadiñon, nire adiskide Bentabarriko Javier Uriartegandik. Hasierako agurra, Jean Haritschelhar euskaltzainburuarengandik. Bi horiez gain, hemen mahaiburuko dudana Nekane Alonso, Bizkaiko Batzar Nagusien ordezkariarengandik, hirurok agurtu nahi ditut.

Gainontzeko agur-aipamenen hasiera, hor aurrean dituzuen hiru emakume izendatzea zilegi bekik: Lourdes, nire emaztea; Leioze, gure alaba eta, Guadalupe, nire ama. Hirurok osatzen baitute nire bizitzako «Trinitate» bedeinkatua.

Segidan, egoitza eta ordezkarietako langile-lankide guztiok eta aldemenetan jarri zaituzten euskaltzain osook.

Agurtu nahi zaituztet, baita ere, aurrengo lerrokadan zaudeten agintariok: Jose Luis Bilbao eta Joxe Juan Gonzalez Txabarri, Bizkaiko eta Gipuzkoako diputatu nagusiok; Miren Azkarate, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailburu, euskaltzainkidea; eskualdeko alkate, Abadiñoko zinegotzi, eta enparau herri ordezkariok. Nola ez hona etorri zareten euskaltzain ohorezko, urgazle eta batzordekideok, kultura eta politika lagunok, adiskide eta lagun oro. Agur!

\* \* \*

Akademiaren Erregelek diotena entzun duzue. Lege Azpibatzordekide lege niri neuri tokatu zitzaidan horren lehen idazketa egitea, testua berri zenean, euskaltzain osoen sarrera kokalekuen tradizioa kontuan izanik, horretan erakundeekiko tradiziozale bainaiz. Ezin igar diezaioketue zer-nolako ohorea den niretzat, hemen, XIII. Mendearen hasierarte Iruñeko Erresumako izan zen Durangoko konderra, Bizkaiko merindade autonomo, gero, hots, Batzar Nagusien propioen egoitza honetan sarrera hitzaldia egitea. Tamalez, ondoko berriatze lanak amaitu barik daude, inguruaren edertasunaz gozatzeko.

Jakin ezazue, Akademia erakundeok ez zaretenok, Euskaltzaindia, zazpi Euskalerrietako instituzio amankomun bakarrean sarrera mintzaldiak ez direla

Bilboko Plaza Barriko egoitzan bakarrik egiten, are gehiago, 1921eko otsailaren 27an Baztango Udaletxean, Damaso Intzakoak hasiera emandakoari ohi-tura jarraiki, zazpi herrialdeetako udaletxe eta eraikuntza publiko askotan burutu direla. Hain zuzen ere, eskualde historiko honetako Batzar Nagusien egoitzan sarrera egitea, Henrike Knörrek 1978an eta Patxi Goenagak, 1995ean, Abadiñoren mugakide dugun probintziako Arabako Batzar Nagusien aretoan egiteak eman zidan ideia.

### **Jose Mari Satrustegiri aipamen eta ohore**

Entzun diozue, Xabier Kintana idazkari akademikoari, 57.7. artikulua. Berorrek aginduko ez balu ere, zor diot aipamen hori Jose Mari Satrustegi zenari. Euskal Herri osoan haren lanengatik ezagutua, Nafarroan instituzioa, euskararentzat ikerlerik onenetarikoa, Euskaltzaindiarentzat zutabe historikoa. Ohorea da niretzat haren ondoko sartze-izatea, gehiegizko, lar, agian, 2. zenbakidun domina eramatea, nire euskalkiko Koldo Eleizalde Debarrokoaren, Urolaldeko Etxegarai anaia bien, Karmelo eta Bonifacio eta Toloserriko Nikolas Ormaetxea «Orixe»ren segidakoa baitzen Sakanako semea.



Satrustegiren euskalgintza, bereziki Euskaltzaindikoa, oso hurbiletik eza-gutu eta jarraitu izan dut, bestalde, lankide ere izan ginen urte askotan. Hamalau urtez hura Erakunde-idazkari eta ni idazkariorde. Pentsa dezakezue norainoko lokarria izan dugun bion artean. Genio-izate biziduna, Haren arrebak aitortzen zidan hori joan den martxoan, Arruazun. Bestalde, «nafar zezena» esaten zuen euskaltzain batek, behin baino gehiagotan «toreatzea» tokatu zitzaidan, baina inoiz ere ez ginen zeharo haserretu, besteak beste, argi geneukelako, gure izamoldeak gorabehera, Erakunde amankomunarekiko interesak zeudela gainetik; baina, ezer bazen Jose Mari, Euskaltzaindiarekiko leiala izan zen.

Andres Iñigo, Nafarroako ordezkari eta euskaltzainkideak, oraintsu *euskera* agerkarian Satrustegiz idatzitako lau kapituluak dakarzkizuet, alegia:

- I.–Euskararen defendatzaile Nafarroan;
- II.–Euskararen lekukoen biltzaile eta ikertzaile;
- III.–euskaltzain eta,
- IV.–Jose Mari Satrustegiri buruz erran eta idatzitakoak.

Gehienok entzunak edo irakurriak dituzue, eta hemen ez ditut errepikatuko. Bakarrik **euskaltzain** lerrokadara mugatuko naiz, hots:

«1963ko maiatzaren 18an ‘Orixek’ utzitako aulkia hartu eta ia berrogei urtez euskaltzain oso izan zen. Aldez aurretik, bertze sei urtez ere urgazle izan zen. Berriki gogorazi digun bezala, hurbiletik hartu zuen parte Erakundearen erabaki garrantzitsueen bilakabidean, euskara batuarenean, alegia. Halaber, Erakundearen barne egituraren kargu garrantzitsuak izan zituen, hala nola, 14 urtez idazkari eta 18 urtez Nafarroako ordezkari. Jarduera akademikoetan Haren emaitzarik oparoenak **Onomastika** batzordean eta **Jagon** Sailean eman zituen, ahantzi gabe hain berea zuen Nafarroako euskaratik hiztegi batuari egin zizkion ekarpenak.

Akademia hurbiletik edo, hobeki erranda, barru-barrutik eza-gutu eta bizi izan zuen, eta Hura, adierazpen publiko guztietan, Institutioaren defendatzaile sutsua agertu izan zen beti. Esaldi batean laburbiltzeko, Haren senideetako batek, urte honetako martxoaren 27an, hil zen egun berberean, esandakoa aipatuko dut: «*Euskaltzaindia Jose Mariren bigarren familia izan da*».

Egia galanta. Eta hemen, nire aurrean dauden hiru emakume-familiakoek, nahiz lankide zein Zuzendaritzakideek, nitaz ere, gauza berbera errepikatuko lukete, seguru asko.

Une batez, nire aitaponteko-erantzule hautatu nuena, Andolin Eguzkitza ere oroitzea nahiko nuke. Galera izugarria euskararentzat eta gure Akademia-arentzat; baita lagun eta adiskideontzat ere.

\* \* \*

Gaurko sarrera hitzaldiaren gai nagusia hautatu eta gero, ohartu nintzen ur sakonegietan sartu nintzela, ozeanoan, seguru asko. Dena dela, gaiak badu



zerrikusirik, behinola gure Euskaltzainburuak, Donostian, Zuzendaritzako bileraren ondoren egindako proposamenarekin, alegia, Euskaltzaindiaren azken hogeita hamabost urteotako barne-historia, hots, Miguel Unamunok esaten zuen intrahistoria idatzi behar nuela. Albotik, garai hartan idazkari akademiko zen Patxi Goenagak, aspaldiko adiskideak, animatu ninduen berandutu baino lehen «memoriak» idazten hasteko, berak ohi duen adarjotze eran, esaldi batekin. Esan nien, jubilatutako ondoren. Behinolako Georges Lacombe euskaltzainaren liburutegi sailkapenaren antzera, hiru liburukitan idatziko nituela nire memoriak, hots: bata, *kulturgintza-euskalgintzako*; bigarrena, *politikoa* eta, hirugarrena, *orotarikoa*.

Geroztik, uste gabe, jubilariorarekin batera, lehenago gure Arautegi zuhurraren arabera, ezinezkoa baizitzaion idazkariorde-kudeatzaileari (hori, herri agintariok uler dezazuen, udal idazkari-artekaria ezin dela, legez, zinegotzi ezin litekeela izan), euskaltzain oso izendatzean pentsatu nuen, lehen tomo horren, lehen zatia laburpen gisa, izan zitekeela hitzaldi hau, hots, «1960ko hamarkadaren kulturgintza» eta, bereziki, *euskalgintza*. Astia hartzen baldin badut eta osasuna izan, egingo dut, hots, 70ko hamarkada, bi azpizatitan: bata lehen bost urteetako, alegia, Francoren diktadurapekoa eta, bigarren «kinke-



noia», transiziokoa, gure denon sektariokeria eta banderizokeriak barne delarik. Hirugarren zatia, 80-90 hamarkada, biona batera.

\* \* \*

## 1. 1961eko Euskaltzaindiaren Biltzarra Donostian

Gipuzkoako hiriburuan egin zuen Euskaltzaindiak bere gerra osteko bigarren Biltzarra, hain zuzen, urte horretako abenduan, *Eusker*a agerkarian, biltzarreko agiriaren artean, jarraiko hau irakur daiteke:

«Abadiño-n, 1961'goko urtillaren 20-an. –Euskaltzaindiko Buruzagi jauna. –BILBO. –Jaun agurgarria: Euskerari buruz oar asko egin litezke eta danak gitxi dira gure izkuntza maitearen alde. Nik ere nere zorrotza eraman nai dut errota: EGUTEGIAK. Gaztea naiz (23 urte nituen orduan) eta orregatik ez dakit asko lengo berri, baiña urte auetan agertzen asi dira egutegi batzuk euskeraz:.... Baiña au tamalgarria, danak desberdiñ, eta desberditasun au arritzekoa da arrotz baten tza eta lotsatzekoa euskaldunontzat. Ayentzat: Nolako izkuntza duk au? Bertakoontzat: Bueno, bueno, etxakiat zein erabili ba, ta obe duk enerua, febrerua... esatea,, ze onekin ziurrago nejabik.... Besterik gabe, barka eskatuaz, agurtzen zaitu biotzez. Jose Luis Lizundia Askondo».

Horixe izan zen, duela 42 urte pasa, nire euskalgintza mundurako «suzko batea». Nire gutuna irakurri ondoren Aita Luis Villasantek bere txosten-hitzaldia irakurri zuen, hain zuzen, nire eskaerari lotuta. Eta Hark, bigarren lerrokadan, zera dio:

«Abadiñotik Lizundia jaunak idatzi zigun, batasunaren alde egiten dan baiño lan gehiago egin bear dala esanaz....».

Eta gero, hilabete guztien izenei buruzko azterketa zehatza egin zuen, *Eusker*a agerkarian ikus daitekeenez. Idatzi banuen idatzi nuen, zeren eta el-karrizketan izugarritzko zalaparta sortu zen eta Koldo Mitxelena mahaiburuak esan zuen:

«Ezkaitezen sesiotan asi orren gauza gutxigatik. Alegia, Aita Villasantek, ez Euskaltzaindiak, eztute gauza ontan errurik. Erruduna, erruduna baldin bada, karta orren egillea da, eta karta orren egilleak ere ezte errurik. Berak aurkitu du desberdintasun aundiak daudela eta galdera bat egin du. Zerbaitetaz auzia bear badugu izan irizpide oietaz da. Eta nik ontan askotan egin dan duda eskera ingo nuke berriz ere, ia noiz zentzutzen geran, ia noiz begiratzen dugun ingurura eta beste gaiñerako izkuntzetan zer gertatzen dan ikusten dugun».... «Biamonerako utzi dira batzarrak...»

Eta hurrengo egunean beste gai batekin hasi zen Biltzarra.

Hamar urte igaro behar izan zen Euskaltzaindiak hilabeteen izenez Araua emateko. Orain hogeita hamar urte, hain erraz soluzionatutako arazo hau, eskoletan eta ikastoletan, administrazioetan eta komunikabideetan; hamabi ize-nok finkatu eta errotu ondoren, berriz ere sakabanatze-ahaleginak egiten dihardute zenbaitzuk. Ernegua sorrarazten zait. Eta hau da itauna: berriz ere tribuetara goaz? Ez ote gara gai egutegi nazional bati eusteko ere? Badirudi batzuen irresponsabilitatez, ezetz.

Bateo data hau hartzen dut hasiera erreferentziatzat gaurko hitzaldirako. Amaierakoa, 1970 urteko iraila, Zuberoako hiriburuan A. Luis Villasante euskaltzainburuaren kargu hartzearena. Garai berri bat hasten zuen hizkuntzaren Akademiak eta euskarak berak ere bai.

## 2. 1963koa Arantzazun eta, Loiolan, 1966an

Oñatiko Arantzazun, bigarren Biltzarra, oso adierazgarria izan zen garai hartako kultura munduarentzat eta, bereziki, euskaltzalegoarentzat. Hain zuzen ere «Euskaltzaleen Biltzarra» deitu zen, titulua berea ere esanguretsua zelarik: «Hiztegi iturburuak eta kultura hitzak». Beronek, irailaren 30tik urriaren 2rarte iraun zuen. Egun bitan joateko aukera izan nuen. Orain hizlarien izenetara mugatuko naiz: Sebero Altube, Luis Villasante, Julene Azpeitia, Jose Maria Azpiroz, Jose Azurmendi, Jose Migel Barandiaran, Jose Basterretxea «Oskillaso», Imanol Berriatua, Nikolas Altzola Gerediaga «Anaia Berriotxo», Andoni Urrestarazu «Umandi», Joseba Intxausti eta Eugenio Agirretxe. Hauek guztiok garaiko euskalaririk bikainenak. Orduko kontestuan jarri behar da Biltzar hori, ordenaren babespean bakarrik posible zena, entzundako hitzaldi, txosten eta eztabaidek sortu ziguten zirarra ulertu ahal izateko.

Ordutik urte bitara, oraingoan, Jesusen Konpainiaren babespean eta beraren semerik famatuetarikoa omentzeko, hots, *Manuel Larramendi*, antolatu zuen Euskaltzaindiak beste biltzar bat Loiolako santutegian, alegia, 1964ko irailean, gerra osteko seigarrenean, hain zuzen. A. Luis Villasantek zioenez, guztiz apala suertatu omen zen, arrakasta gutxikoa. Zehatzago aztertu behar-ko litzateke, bai Azkue Bilbiotekako artxiboan eta, baita Loiolakoan ere. Zergatik gertatu zen hau, kontuan izanik euskaltzale zahar eta gazteok, zer nolako egarria geneukan !!! Gai nagusia ere interesgarria zen:»Euskarak irakurleak gehitzeaz«. Eta ni, bertara, bakarrik, azken egunean joan ahal izan nuen.

## 3. Euskal kantagintza berria

Gure belaunaldiko edonork daki euskal kangagintza berria, Kataluniako «nova cançó» fenomenoan oinarritua dagoela. Principateko bibliografia uga-

riz hornitua dagoen neurrian, ez dago hemengoa, horrenbeste ez gutxiagorik ere. Balen Oronoz Antxordokik, Juan Mari Lekuona euskaltzainkidea aita-ponteko duela, liburuki polita egin du, titulu luzetik hasita: *Gazteri berria, kantagintza berria. Euskal Kantagintza Berriaren («Ez dok Amairu») eta Nova Canço Catalana-ren (Els Setze Judges) arteko Azterketa konparatiboa.*

Manuel Vázquez Montalbantentzat, kantagintzak izan dezakeen eragina zeintzu faktoreei zor zaien azaltzen du, labur bilduz:

«testua laburra eta oroiterraza izatea; musikaren bitartez giza sentsibilitate-ra, emotibitate-ra heltzea; komunikazio erraza izatea; kantariaren beraren izaerak «karismak», eman dezaiokeen babesak».

Munduan zehar ereinda zegoen hazia ere aipatzen du, hala nola Atahualpa Yupanqui, Bob Dylan, Beatles taldea, George Brassens. Doménico Modugno eta abar.

Lehen kapitulua amaitzeko Juan Mari Lekuonak, 1978.eko *Jakin* aldizkarian egindako definizioaz gelditzen da, nahiko osatua iruditzen zaiolarik Oronoz andreari. Gaurkoz pasarte bat aski da, nahiz eta gero hitzaldi hau argitaratzen denean osoa irakurtzeko aukera izango baduzue ere. Honela dio Juan Mari Lekuonak:

«Kantautoreari eskatzen zaizkion baldintzak hiru eratakoak dira: poetaren arikoak, musikariaren alorrekoak eta kantariaren mailakoak».

«Ez dok Amairu» taldea da euskal kantagintza berria nagusiki denifitzen duena. 1965ean biltzen hasi zen taldea eta Barandiaranek Bizkaian bildutako ipuin baten oinarritua, Oteizak eman zion izena, gehienok jakingo duzuen legez. 1966ko urte hasieran, Jarrai antzerki taldearen eskutik egingo zuen, urtarrilaren 9an, Hernanin eta Donostiako Victoria Eugenia, hil horren 23an. Astia banu, martxoaren 20an, Irunen taldeak eman zuen errezitalaren erreseina ekarriko nuke, liburugilea ohartu ez bada ere, badakidalako nor den, Nikolas Altzola Gerediaga izurtzarra, Anaia 'Berrio-Otxoa', alegia. Bizkaira urte berean etorri ziren lehendabizikoz, hain zuzen, Gerediagak ekarritako Durangoko II. *Euskal Liburu eta Disko Azokara*, Domusantuetan. Izugarrizko onarpen eta zabalkundea lortu zuen Uribarriko Andra Mariako elizpe handia jendez gainezka «Ez dok Amairu»-k, Euskal Herriko eskualde orotarik etorritakoak. Bertan kantari jarraikook izan ziren, alegia: Mikel Laboa, Benito Lertxundi, Xabier Lete, Lourdes Iriondo, Julen Lekuona, Jose Anjel Irigarai izan ziren, baita Artze txalapartariak ere. Baina esan behar da, lehentxoagotik hasi zela Mikel Laboa kantagintzan, katalanekin zituen harremanak medio, 1964an, Lapurdiko «Goiztiri» argitaletxean argitaratutako lau kanta herrikoiekin. Eta hemen ez naiz talde honekin gehiago luzatuko, 1965-72 urteetan iraun zuen eta ongi estudiatuta / ikerturik dagoela, uste dut.

Gutxiago, ordea, beste kantari batzuk, hala nola Mixel Labegerie, lapurtarra. Beronek, 1963an, lehen diskoa plazaratu zuena, besteak beste, «Gaz-

teri berria» kantu famatuarekin, Piarres Lartzabal euskaltzaina letragile izan zelarik. Maite Idirin eta Estitxu Robles bizkaitar bion kantagintza ere historiatzeko dagoela, esan daiteke. Jose Antonio Villar oñatiarraren *basque party* edo eta *euskal ye-ye* motako kantagintza modernoa, alegia, dantzalekuetarakoak ere aipamen garatuagoa mereziko luke. Honela, Bergarako Arizona hotelak saioak antolatzen zituen eta nobedade erakargarria zen dantzazaleontzat. Orobat, *Soroak* eta Azkoitiko *Los contrapuntos* boskotearenak, Luis Iriondo tartean. Ondarroako Argoitia neba-arrebak, 1969, Abrako Jaialdian sarituak. Lerrokada honek Imanolekin amaitzea merezi du, zeren eta egunotan zendu berri zaigunez gero, 60.hamarkadaren amaieran hasi baitzen kantatzen, Hark esandako arrazoibideekin, alegia:

«Jendearen kontzientzia esnatzeko kantuak behar ziren. Horregatik hasi nintzen, beharizan politiko bategatik».

#### 4. Euskal artisten lau taldeak

1966.eko uztailaren 25etik 31ra, Garaiko Zubiaurre anaien, Valentin eta Ramonen omenetan antolatu zuen Gerediaga Elkarteak erakusketa bat, he-



mendik hiru kilometrora dagoen udalerrian. Baimenak lortzeko, Santiago-Santa Ana herriko jaien egitarauan sartzea izan zen lehen prozedura, Udalaren babesa lortuz, orduko Juan Oarbeaskoa alkatearen laguntzarekin, eta Diputazioarena, Durango eta Markinako diputatu probintzialenagaz. Omenaldiaren kanpoko jaia, ofiziala, lehen eguna izan zen; eta, bigarrena, ordea, Santa Ana egunekoa, itxuraz apalagoa, garaitarrena bakarrik izaten dena, artisten omenaldirako aprobetxatu zen hiru hilabete lehenago, Gipuzkoako *Gaur* taldea sortua zen eta *Hemen* izendun Bizkaiko artista taldearen kanporatzeko igararri bazen ere, prekauzio guztiekin, Arabako *Orain* eta Nafarroako *Danok* taldeak osatzeko ere baliatu zen Zubiaurretarren omenaldi hau, zeren eta lau herrialdeetako artistak hurbildu baitziren Garaira, Artze anaien txalaparta deialdi eta guzti. Hona hemen adierazpenaren lerrokada zenbait, gaztelaniaz, noski:

«El grupo EMEN de Vizcaya, al nacer con el grupo GAUR en Guipúzcoa, el grupo ORAIN en Alava, el grupo DANOK en Navarra, con la voluntad de unir a los artistas respetando sus diferentes tendencias dentro de la ESCUELA VASCA .... su identificación con el manifiesto del grupo EMEN en abril; estableciendo dentro de este espíritu sus directrices generales en común con los otros grupos, sobre la base de igualdad y respeto al carácter y autonomía de cada uno de ellos...».

Nazio Batuetako giza eskubideen karta, *Pacem in Terris* entziklika famatua eta askatasun espresioa agertzeaz gain, zenbait erreibindikazio egiten ziren. Hauetatik bakarra dakargu hona:

«a) Reivindicamos la elemental y urgente necesidad de la creación del Instituto de Investigaciones estéticas como culminación y actualización de las Escuelas de Bellas Artes, con la proyección actual de enriquecimientos e investigación de nuestra cultura, en cada uno de los diferentes niveles que se le vienen planteando al artista; así como de una Universidad Vasca sin carencia ni dispersión de Facultades Técnicas y Humanísticas a nivel de nuestra sociedad».

Pentsa dezagun zer datarekin amaitzen den «Garay, 26 de julio de 1966». Hau da diktadorea, alegia, Francisco Franco hil baino bederatzirte lehenago! Prentsak, *La Gaceta del Norte*ko Miguel Angel Astiz, kazetari euskaltzale nafarraren kronikaz landa, ez zuen ohiartzunik txikienik ere eman. GEREDIAGA elkartearen aldizkariak, zeinen zuzendari legala zen Astiz berbera, ekarri zuen adierazpen hura.

Omenaldiaren bazkalostean kamuflatutako bileran artista ezagun ugari agertu ziren, alegia: Oteiza, Zumeta, Ruiz Balerdi, Basterretxea, Larrea, Ibarrola, Elgea eta abar (antolatzaile elkartearen idazkari gisa hartu nituen oharrak ez ditut aurkitu). Herriko Etxean, argitaldari, idazle, kantari eta beste mahaikideek lekukotu zuten kasu honetan ere euskal kulturgintzako transbersalitatea. Noizbait garatuko ote da, hots, euskal artiston 60ko hamarkadaren mugimendua, noski, kulturgintzaren kontestu osoan?

## 5. *Ama Lur* filma

Euskal kulturgintzan, film honek zer suposatu zuen hamarkada honetan jakiteko ez dago gauza hoberik Gurutz Jauregi, Félix Maraña eta Juan Manuel Gutierrezek paratutako liburukotea irakurtzea baino, hots, *Haritzaren Negua AMA LUR y el País Vasco de los años 60* izeneko. Aipaturiko lehen bien artikuluetatik pare bana aipamenekin aski duzue, gaurkoz, baina, dena irakurtzea biziro erregutuz.

Gurutzek «Nuestro mayo del 68» titulupean:

«Durante la década de los sesenta Euskadi vivió tiempos de grandes protestas sociales y políticas... Estos y otros acontecimientos constituían en definitiva el reflejo, la parte más visible de la extraordinaria vitalidad y efervescencia de la sociedad vasca del momento, en todos sus ámbitos, cultural, económico, social, político, etc...» .

Félix Marañak, ordea, «La década creadora» izenpean hausnarketa sakanak egin zituen, besteak beste:

«Existe una tendencia generalizada a explicar la historia reciente de Euskadi reduciendo su pasado a la significación más o menos mediata o inmediata, de lo que la política determina, informa o conforma. Este modo de historiar, que presta relevancia, de manera sectaria, al pasado de los agentes y grupos políticos y centra su ejecución en su ejecutoria, falsea por reducción el valor de la historia «total» y desoye y cercena la ejecutoria civil del conjunto de actividades sociales y culturales en un tiempo determinado.... la sociedad civil y buena parte de sus agentes culturales conformaron una tarea de mayor significación y mejor crédito. Esto, sin más, ha sucedido a la hora de tratar de un período, como es la década 1960-1970...»

78 artikulugile biltzen ditu liburu aberats horrek, kultura eta politikako andana oparoa agertuz. Orain zerrendatzea luzeegi aterako litzateke, baina bai, agian, argitaratzean ezarriko. Besteak beste, nireak honela zuen izenburua: «67-68 urteak eta euskal kultur testuingua». «Ama Lur» egitasmoaren inguruan, ez baitzen film soila izan, Fernando Larrukert, Nestor Basterretxea eta beste batzuren artean, Jose Luis Etxegarai zenaren izena nabarmendu zen, hura izan baitzen taldearen kudeatzaile eta arima.

## 6. Kultur elkarten sorrera, *Gerediaga* eta beste

Gerediaga, Durango Merinaldeko Adiskideen Elkartearen sortzea, 1965ko urtarrilaren 22an, San Bizenti auzoko santuaren egunean, beraz, Astolako orduko gure etxean, jaia ospatzeko afarian, talde batek asmatu genuen. Handik hilabete gutxira, ekainaren 7an, berriz ere beste afari batean, bestela legezko bilerak egitea zaila baitzen, Abadiñoako Soloeneko jatetxean, hamaika lagunek sortu genuen kultura elkarte hori. Legezko egoitza gure etxea, Bizkaiko Go-

bernu Zibilaren onartze agirian ikus daitekeenez. Horregatik nengoen ni honen zaindua!

Elkartea legeztatzeko, aurreko urtean, 1964.ko abenduaren 24ko «Ley de Asociaciones» lege berriaren arabera egin behar zen. Eta Lege horren garapen dekretua, 1965.ko maiatzaren 20koa zen. Frankismoaren lege berri horrek zirrikitu bat ematen zuen eta indarrean ezarri bezain pronto mugitu ginen. Hala eta guztiz ere, 1966ko ekainaren 1ean, onartu zigun elkartea orduko Gobernadore Zibilak, bizkitartean, ikerketa, informe eta beste buruturik, noski.

Interesgarria litzateke, 1965-1975 tartean, zirrikitu horren bidez, Euskal Herrian zehar zenbat elkarte sortu ziren jakizaraztea, kulturgintzakoak, bereziki.

\* \* \*

Asmo ugari sortu ziren bazterretan, nahiz eta kasu batzuetan gauzatzerik ez izan. Honetaz, ni baino hobeto oroituko da gure euskaltzainkide eta adiskide, Jose Antonio Arana Martija, gugana etorri baitzen elkartearen sorreraren berri jakinguran, bera zebilelako Gernikan, Busturiko Merindadeko Adiskiden elkarte bat sortzeko asmotan. Jose Antoniori ezinezkoa suertatu zitzaion.

Gure elkartearen zilegitasuna lortzeko «eskualdearen kultura altxorra, zaintzea eta jasotzea» zen helburu nagusia, «interes amankomun baten, bata-



sun kontzientzia berloratuz». Beraz, argi geneukan, gure eskualdea, euskal eskualdea zela eta aipatu «batasun kontzientzia» ez zela bakarrik hamabi udalerrien artekoa, baizik eta Euskal Herrikoa ere. Esan ez genuen egiten, ez eta Bizkaikoa ere, badaezpada. Lehen ekintza, onuragarria zelako, baita despistatzeko ere, eskualdeko lau urietan, Elorrio, Ermua, Otxandio eta Durangon, pintura erakusketa ibiltaria antolatu genuen. Ez gara hasiko, hemen eta orain, elkarrekin honek 39 urtetan egin dituen ekintzak aipatzen, behinenak ere ez, ez eta kultura alorrekoak ere, zeren eta Elkartea nekazaritza eta beste ekonomia sektoreetan ere aritu baita. Tokiko administrazioko egitasmo bat aipa daiteke, hementxe bertan bildu baizituen, 1966ko abuztuaren 6an, *Salbatore* egunean, eskualdeko alkate gehienak, Mankomunitate bat sortzea bultzatzeko asmoarekin. Honela ba, gaurko Euskal Autonomia Erkidego eremuko 36ko gerraostean, lehen mankomunitatea, eskualde honetakoa izan zen eta, bigarrena, Debagoienekoa. Eremu asko ikutzen zituen. Onuragarria litzateke eta, onartuko didazu atrebentzia, Gerediaga Elkarteko, Nerea Mujika lehendakari / buru andrea, datorren ekainerako, 40. urtemugarako, norbaiti Elkartearen barne-historia burutzeko agintzea. Onuragarria litzatekeen moduan, gainontzeko Hego Euskal Herrian, garai horretan, 1965-1975, loratu ziren kultur elkarten historiari buruzkoa ere.

## 7. Euskal Liburu eta Disko Azoka

Gerediaga Elkartearen lehen urteko ekintzetariko bat *Euskal Liburu eta Disko Azoka* izan zen. Behin baino gehiagotan esan bezala, adibidez, Joan Marti Torrealdeai zuzendariaren eskariz, 1975ko urriaren 31ko *Anaitasuna* aldizkarian, «Hamar urtetako kronikan» idatzi nituen pasarte batzuetara mugatuko naiz, alegia:

«...Azoka hau egitea, elkartearen sortzaileetarikoa baten ideia izan zen, Leopoldo Zugazarena. Gerla aurretik euskal liburu azoka bat Gasteizen izan zela entzuna zuen nonbait. Behin egindako feria horrek jarraipena behar zuen, egun jakin batetan egina, eraberritua, gaurkotua. Domusainduetarako prestakizunak egiten hasi ginen, beldur ere. Argitaldariaik gauza ezezagun baten aurrean aurkituko ziren. Agintarien erantzuna ere ez zen segurua. Hemen emakume bi aipatu behar ditugu: Conchita Astola, elkartearen lehen presidentea eta beroren ahizpa Charines, Durangoko Udaletxeko bulegaria, mugitu behar ziren hari batzuk mugitzen saiatu zirelako. 1965ko urriaren 30etik azaroaren 1 bitartean antolatu zen Azoka, 25 argitaletxe etorri ziren, Katalogoak 28 orrialde izan zituelarik.... Lehen Azoka honek Euskal Herriko kultura munduko zenbaituk harriturik utzi zituen. Gauza berri baten aurrean jarri zuen.: «Jai au ez da izan gure errietan antolatuten direan beste Euskal Jaien antzekoa, folkloreako gauzetan geldituten gara beti: dantza, bertso, kantu... Beti azaleko gauzak. Azoka onek sakonago jokatu gura izan dau. Folklore gauzak ezetsi gura barik, euskal kultura adierazo, indartu ta zabaldu gura izan dau».



Hau guztiau zioen *Anaitasunak*, 1965.eko azaroko zenbakian:

«Beste euskal aldizkari eta erdal egunkarietan ere holako zerbait agertu zen, Durangoko Azokak ordurarteko jaialdien eraketaren muina gainditzen zuelako, hain zuzen ere».

Bigarren Azoka, arestian aipaturiko «Ez dok Amairu»-ren Bizkaiko lehen agerraldiaz gain, beste bi gertakizun bildu zituen, bata ondoko herrian, Mañarian, Kirikiñoren mendeurrena, Euskaltzaindiarekin batera, berau Bilboko egoitza eta Gipuzkoako Diputaziotik atereaz eta, bestea:

«Andra Mariako elizpean bertan egin zen, halaber, azkenengoz egin den Bizkaiko bertsolariaren txapelketa. Harez gero ez dute horretarako baimenik eman. Lau bertsolari hauk geratu ziren lehenengo: Lopategi, Mugartegi, Arregi eta Muniategi».

Eta hara non norbaitek zera esan zidan:

– «Zer, EGIkoak dituk danak ala?».

Hurrengo urtean, 1967an, ezin egin ahal izan zen Azoka, Andra Mariako elizpea eta teilatua konpondu behar zelako. Geroztik, urterik urte, lehen zortziak elizpe zabal horretan antolatu ziren, 1974koa, ordea, Merkatu Plazara, Gobernadore Zibilaren eraginez. Hura militarra baitzen, beraz, nekez zibila, baina kaltetu nahian mesedea egin zion Azokari. Geroztik, 2003.urte arte, 38 Euskal Liburu eta Disko Azoka antolatu ditu Gerediagak, Diputazioen, Jaur-laritzaren –1980 ondoren– eta Durangoko Udalaren babesekin. Argialetxeen partaidetza urtetik urtera ugartzen joan den uka ezinekoa dugu. Ea datorren urtean, beste 30 urtetako kronika norbaitek idazten duzuen, hots: Anton Mari Aldekoa? Jon Irazola? Seguru askoz ere aberatsagoa izango dela... Hemerroteka ere galanta izango litzateke eta *Index Onomasticon* delakoa ere, elkarteko langile trebe eta apal asko ere agertu beharko lirateke eta Euskal Herriko argitaldari, kantari, idazle, euskaltzale eta agintari ere. Bego horretan, gaurkoz, kronika orokor horren zain.

\* \* \*

## 8. Antzerkia eta folkloregintza: dantza, txistu eta beste

Euskal antzerkia ere hamarkada honetan hasi zen mugitzen, gerraosteari dagokionez, noski, hitzaldi honetan errepikatuko den izen baten eskutik hain zuzen, Iñaki Beobiderengandik eta berak zuzentzen zuen Donostiako *Jarrai* taldearen inguruko *Antzerti*-ren bidez. Talde honek euskal antzerki tradizionalen ildotik aldendu eta korrante modernoetara eramane zuen hemengo antzerkia, Kataluniako antzerkigileekin harreman hestua sortuz. Hain zuzen ere, Gipuzkoako egoera politikoa baino hobeagoa zegoelako hemen eta Gerediaga

Elkartea legeztatua, Zaldibarren antolatu ziren, Iñaki Beobide eta Ricard Salvaten zuzendaritzapean Euskal Antzerki Jardunaldiak, 1967.ko uztailaren 16, 17 eta 18an, herriko jaien egitarau babespean. Bartzelonako *Adriá Gual* antzerki eskolaren Salvat izan zen jardunaldion gidari, Antonio Labaien, Jone Forkada, Pierre Larzabal, Jorge Oteiza, Iñaki Barriola, Iñaki Beobide eta Salvat bera, besteak beste, izan zirelarik hizlari edo txostengile. Jardunaldiok probetxugarri izan ziren, ordurarte, bakoitzaren isolamendutik irten eta elkarren arteko loturak finkatzeko. Iñaki Beobide berak, amaieran adierazi zuenez, euskal antzerkiaren mintzatukerari, «Zaldibar aurretik eta geroztik» esan beharko dela. Gerediaga Elkartek ere eskualde honetarako saila sortu zuen *Garitao-landia* izeneko, zeinen babespean martxan hasi baitzen Durangoko *Geroa* izeneko taldea, hain zuzen, hamarkada honen amaieran.

Folklore gerra aurretik abertzaletasun berbizkunde zentzutik aritu zen gehienbat. Hamarkada honetan beste gorpil bat hartu zuen, dantza autoktonoei buruzko ikerketa zentzua emateko. Herrietan, batzuetan hilzorian gainera, gordetzen ziren dantzak, hiriburu eta hiri ertainetan sortzen ari ziren dantza taldeen bidez indarbertitzen hasi ziren. Gehiago oraindik, zenbait zuzendari lekukotasunak bildu, artxiboak arakatu, dantzari eta soinu-joleei grabatu eta folklore ikerketan murgildu ziren. Izen batzuk aipatzearen Donostiako Juan Antonio Urbeltz, Bilboko Iñaki Irigoien eta Sabin Egiuren azpimarratuko nituzke. Durangaldean Ihurretako Jose Javier Abasolo «Tiliño»-ren izena ezin dut ahan-tzi. Hain zuzen, 1967ko irailaren 27an, «Aita San Migel Ijorretako...», elizate horretan, Gerediaga Elkartek antolatu zuen I. Ezpatadantzari Eguna, hasi berri ziren «Euskal Jaien» zentzuz kanpo, gure folkloeari eraberritze bat emateko asmoarekin. Han ziren aipaturiko ikerle eta beste. Data jakingarria gai honetaz 1969.ko azaroaren 29an, zeinetan lortu baitzen, urte eta erdiko kudeaketa zailen ondoren, Euskal Dantzarien Biltzarra legeztatzea. Jesus Mari Arotzarena, Manuel Olaitzola, Elena Arizmendi, Francisco Escudero, Antonio Valverde eta Javier Aranburu, azken biok euskaltzain urgazleak, izan zirelarik elkartea sortzeko sinatzaile, gibelean beste batzuk baziren ere. Elkarre horren emaitza, hurrengo urtean sortuko zen *Dantzariak* izeneko aldizkaria izango zen, guztiz irakurgarria gure folkloregintza eta beronen ikerkuntzaz zerbait jakin nahi baldin badu norbaitek. Ni neu ere, hasieran, kolaboratzailea izan nintzen.

Txistularitza Gerra Zibilaren ondorioz Diktadurak zeharo ez zuen baztertu, Lizarrako alkateak txistua jotzea galarazi arren. Askoz hobeki ezagutzen da elkartea 1964ko Legea baino lehenago legeztatu zen bakarretarikoa zelako eta, berarekin batera, *Txistulari* aldizkaria. Berau ez zen eta, ez da, txistulari munduaren harreman eta informazio iturri, bakarrik, baita ere melodia bilgune eta ikerketa leiho aparta ere, 60.hamarkadako bilduma delarik alor honen lekukorik hoberena. Aipaturiko aldizkari bion aurkibide komentatu batek asko lagunduko luke urte horietako folkloregintza ezagutarazteko.

## 9. Euskarazko klaseak eta Alfabetatze Kanpainen sorrera

Euskaraz ikasteko gerra osteko klaseak non, nork eta nola hasi ziren historiartza ere onuragarria litzake. Bilbori dagokionez aurreko hamarkadaren amaieran, Xabier Peñaren ardurapean, Erribera kaleko Euskaltzaindiaren egoitza zaharrean hasiak ziren, gero Jaime Goenagak jarraituko zituenak. Eskualde honi dagokionez, aurtengo abenduaren 3an beteko dira berrogei urte hasi nituela uriko Santa Ana parrokiako «Escuela Dominical» deritzanean, bi talde 39 lagun apuntatu zirelarik.

Ricardo Arregik, euskal kulturaren historia aipatzerakoan, 1960. urtea hartzen du mugarri:

«Eta ez da kasualitate hutsa gizartean horrelako aldakuntzak gertatzea (Estatuko aldaketa ekonomikoak ditu gogoan, teknokratenak batipat) eta euskal kulturara –hau da, euskal literaturara, euskal pinturara, euskal abestia, euskal antzerkikira etab. –belaunaldi berri batera iristea».

Rikardok, 1966ko urtarrilaren 14an, Euskaltzaindira igorritako gutunaren zati esanguretsuenek hau diote:

«Bi orri bidaltzen dizkizut nire adiskideen izenean ikus dezazun zer nai den nai duguna ta Euskaltzaindian datorren batzarerako.... gai au erabiliko den abisua, jarri dezazun (gure artxiboan dagoen gutun hau ez dago inori zuzendua, baina nori zegokion bistan dago, orduko idazkariordeari, Alfonso Irigoieni, alegia). Bakazioetan Koldo Mitxelenaekin egon giñan eta gure asmoekin ados zegoen.... Uste dugu proposatzen duguna oso garrantzi gauza dela ta gu beñepein Euskaltzaindiak onartzen baldin bagaitu lanerako gertu gaude ta....»

Arregik eta *Zeruko Argiako* Jarrai sailkide bik, Iñaki Beobide eta Mikel Lasak sinatzen zuten, gero, hil bereko 28ko Batzar-Agiriari, eskaria onartu zeneakoari begiratzen badiogu, sinatzaileen artean Juan San Martin ere agertzen da. Beronekin, beste hirurekin eta Patxi Altunarekin osatu zen lehendabiziko Alfabetatze Batzordea. 1967an gure etxera etorri zen Bizkaian Alfabetatzeko Kanpaini hasiera emateko gogoz eta, handik lasterrera, Bilbon hitzordua jarri genuen, Xabier Kintanarekin, Udaletxe ondoko ostatu batean, honek hiri-buruan eta nik eskualdeetan kanpainok atontzeko. *Alfabetatzea Euskal Herrian* liburukian honako hau irakur daiteke:

«Herri Gaztedi izan zen eskualde honetan eragile, Abadiñoako **Gerediaga** azoko **Salbadore** ermitan, Durangon eta Berrizen 1968 eta 69an alfabetatze ikastaroak martxan jarriaz. Ricardo Arregi berbera gure artean hizlari izan genuen».

Zilegi bekit, bertan gaudelako, pasarte hau zuoi irakurtzea.

Rikardoren heriotzak, 1969ko uztailean, gertatuak Alfabetatze Batzordea berriztatzea ekarri zuen, abuztuko Batzar-Agiriak dioenez:

«Zuzendari, A. Irigarai jauna, eta Rikardo zenaren ordeko J. L. Lizundia eta Begoña Arregi. Ontzat hartu da».

Azaroan Kepa Enbeita eta Serafin Basauri sartzen dira eta hurrengo urtean, batzordea berriztatzen denean, Xabier Kintana, Bizkaitik, Manu Ruiz Urrestarazu, Arabatik eta Jean Haritschelhar eta Piarres Xarriton, Iparraldetik gehitzen dira. 1970era iritsiz gero, hamarkada honetan alfabetatzeari, euskalduntzea gehitzen zaio eta, nola eskualde bakoitza bere kontutik zebilen eta koordinatu beharra, Alfabetatze-Euskalduntze Koordinakundea sortu zen, AEK, alegia. Honen eragileetako bat izan zen Juanjo Zearreta lankidea, beraz, berari pilota pasatzera hobe, hasi «Colegio Vasco-Navarro de Arquitectos» delakoaren egoitzako bataio agiritik eta segi, hamarkada hori historia dezan.

\* \* \*

## 10. Ikastolen loratzea

Oraindik ez da ziurtatu, noiz eta nork asmatu zuen *ikastola* hitza, zeren eta Larramendik *ikasola* erabili zuelako. Lekukotuta dagoena da *ikastola* hitzaren hedadura, 1921ean, Euskaltzaindiaren lehen biltzarrean, Durangon, Federico Belaustegigoitia euskaltzain urgazleak eman ziola. Haren hitzaldiko izenburu eta kapituluek hau diote:

«Euskerazko eskolak: ume ikastolak eta beste ikastolak, nai dogun ikastola, *ikastola* barriak Diputaziño ta udalen egitekoa, eskola liburuak eta Euskaltzaindia, auzo *ikastolak*».

Gerra aurreko ikastolen «Escuelas Vascas» eta beste, ez dira gaurko gaiak ez eta, gerrostean, 50 hamarkadan, etxerik etxe, Donostian (1945-1969), Elvira Zipitria eta beronen lankideek egindako lanez, orobat, Bilbon, San Nikolas elizako lokaletan egin ahaleginak, agintariak zapuztutakoak (1957). Gaurkoz aipa daiteke 60ko hamarkadan sortu zen *ikastola* mugimendua, uholde bihurtuko zena, frankismoaren amorrurako. Uholde horren hasieraz zertzelada batzuk egitea aski da. Gainera lan interesgarriak argitaratuak daude.

1963an, Donostiako Santo Tomas Lizeoan egindako urratsak garrantziak izan zirela, dudarik ez dago. 1966. eko ekainean egin zen, ordea, lehen *ikastola* legalaren inaugurazioa, Euskaltzaindiaren izenean eta babespean, Alfonso Irigoien, erakunde akademikoaren idazkariordeak egindako tramitazioari esker, Julita Berrojalbiz maistraren zuzendaritzapea. *Resurrección Maria Azkue* izena eraman zuen, Bilboko Elkano kalean. Baionan, 1969an, Argitxu Noblia, Ramuntxo Camblong, Manex Pagola eta bestek sortuko zuten *Seaska* elkarte eta ikastola. Hamarkada honen amaieran sortu zen Iruñeko ikastola hedatzea, jaito eta berehala zatiketa etorri bazen ere *San Fermín* eta *Paz de Zizganda* ikastolak eraikiz. Gasteizko *Olabide* ikastola, 1967/68 ikasturtekoa dela, uste dut. Ikus daitekeenez eta, hau bada interesgarria, ikastolen mugimendua hiriburuetakoa da, gero, maila ertaineko hirietara hedatzen dena. 20ko hamarkadan, Bizkaiko Diputazioak *Auzo ikastolen* erakundetze hori, Primo de Ri-



Goizeko hileroko batzarraren ondoren, Abadiñoako Udaletxe aurrean.

veraren diktadurak desbideratu zuena, baserri gizartera zuzendua zen. 60ko hamarkadakoa, ordea, urbanoa, hirikoa zen. Horiez gain, beste kultura mugimenduekin, batez ere, euskalgintzakoekin harreman ugariekin: euskara batua-ren premiarekin eta Euskaltzaindiarekin, alfabetatze-euskalduntzekoarekin, artistekin, liburugileekin eta argitaletxeekin eta abar. Euskalgintza horren transbersalitate hori nabarmendu nahi nuke eta. Behar bada, 60ko hamarkadako *zeharkaletasun* hori gutxi ikertua baitago.

Karlos Santamaria, Jose Migel Zumalabe, Pakita Arregi, Jaxinto Fernández Setien, Jose Lasa, Julita Berrojalbiz, Gereño neba-arrebak, Jesus Atxa, Joseba Arrieta, Arantxa Santamaria, Uri Ruiz Bikandi eta Zabaleta nebarrebak, Iparraldeko aipatutakoak eta beste asko, *ikastola* mugimendutik kanpo genbiltzanontzat ez ziren ezezagunak, baizik eta lagun, batzuentzat «bidaia lagun», gainera.

Kataluniako *Rosa Sensat*-ekokin ikastola munduak izan zituzten harremanak ere jakingarri lirateke, kantariekin, artistekin eta Akademia bietakoekin zeuden bezalaxe. Urteak pasa eta gero 1981ean, hara hor, non berriz topo egiten dugun beraien Parlament jauregian Marta Mata eta Maria Aurèlia Capmanyekin, hango eta hemengo hizkuntza erabileraren normalizazio legeen prestaketa-trukaketa zirela medio. Non ezagutu genuen, ordea?: ikastoletako andereñoen ikastaroetan.

Ikastoletako irakasleek euskararen ezagupen eta gaitasun maila frogatzeko Euskaltzaindira jo zuten arduradunek, alfabetatzeko bezalaxe, horrexetarako sortu zuelarik gure Akademiak *D* titulua. Harreman hauek ere historia-tzeko daude, orobat, gure Erribera kaleko egoitza zaharra ordu eta egun askotan nola izan zuten aipaturiko Arantxa, Uri, Amaia Gorroño, Gaztantxo eta beste askok. Eta Gipuzkoan, Donostiako elizbarrutia babesle izan zen bezalaxe, Lazkao, Zornotzako Euban, pasiotarren ikastetxea eta beste aterbe asko izan ziren. Hemen dauden Gerediaga Elkarteko bigarren eta hirugarren lehendakariak Balendin Lasuen eta Jose Ignazio Alberdik zer azpiegitura eskaini zuen Elkarteak, bere Kirikiño Sailaren bidez, aitor dezakete. Euskal Herriko beste eskualde askotako elkarte ugari busti ziren orduan, ez ordea, erakunde publikoak, trabajartzaile baitziren, salbuespen pertsonal batzuk salbu.

Hau guztia garatuz ikusiko litzateke nolako «transbersalitatea» zegoen 60. hamarkada ilun hartan, nola zirkulartzen zuten euskalgintzako lagunek, «Zeharkalean» zehar, eginkizun batetik bestera. Kasu honetan, ikastola mugimenduren mesedetan, zeren eta hamarkadaren bukaeran, ia ehun bat ikastola loratuta baitzeuden Euskal Herrian, lehendabizi 1967-02-02ko «Texto refundido de la Ley de Enseñanza Primaria» zirrikitu hestuek uzten zuten heinean eta, hurrengo hamarkadan, 1970-08-04ko Villar Palasi ministroaren «Ley General de Educación» delakoaz baliaturik.

\* \* \*

## **11. Euskara Batua: Baiona, Ermua eta Arantzazuko Biltzarra**

Euskara Batuaren premia aspaldidanik bazetorren ere, Euskaltzaindia 1919an sortu eta laster, gehienok dakizuen legez, erakunde akademikoak Arturo Campion nafarrari eta Broussain lapurtarrari eman zien gaia jorrazteko. Mila arazo eta arazoik, ez bakarrik garbizalekeriak, ez eta Diktadura biak, Dictablandak, edota, Errepublikaren inestabiliteteak, atzeratu zuten premia horren irtenbidea. Aztertzeko gaia litzateke. Federico Krutwigek planteatu zuen arazoa lapurtar klasikoa eredutzat hartuz. Hamarkada honetan hasi zen hedatzen euskara batuaren aldeko mugimendua, hain zuzen 1964an, Baionan, idazle talde batek, 'Txillardegí' ezagunena, Euskal Idazkaritza izenarekin ezagutzen dena. Zenbatek dakite talde horren ahaleginez?

1968.urteko lehen bilkura akademikoan, urtarrikikoan, Euskaltzaindiaren Urre Eztaiak ospatu behar zirela eta, Gabriel Arestiren proposamenaz, urriaren hasieran egingo zen biltzarra euskara batuari eskaintzea onartu zen, bi parte izango zituelarik, Oñatiko Arantzazun biltzarra bera eta Unibertsitatean ospakizun irekia. Hizlari nagusia Koldo Mitxelena izan zen, baina Aita Villasante, Salvador Garmendia eta beste zenbaitegandik hitzaldi eta txosten mamsuak entzun genituen. Denak ez ordea, zeren eta Juan San Martin idazka-

riaren eskariz, Iñaki Beobide eta biok antolakizun laguntzaile izan baikinen. Hango adierazpen erabaki famatua, hainbeste eztabaida sortuko zuena, ezin izan zen laugarren egunean Unibertsitatean agiriko ospakizunean aldakarrikatu, Gipuzkoa «Salbuespen Legepean» zegoelako eta Oñatino urteko herri-jai nagusiak ere ezabatuak zirelako. Aldarrikapen hori ez egitea norbaitek prozedura huts legez hartu zuen euskara batuaren erabakiari balioa kentzeko. Norbait horrek ez zekiena zen eta Juan San Martinek argitu zion. Hain zuzen hileroko ohiko bilkura akademikoan irakurri eta Batzar-Agiriarekin batera birretsi zen eta, agian, zuok, gehienok ez dakizuena beste hau da: Gerediaga Elkartearen gomita onartuz, III. Euskal Liburu eta Disko Azokaren karira, Merindadeko Auzitegi zaharrean, Astola-Abadiñon egin zuela Euskaltzaindiak bilkura hori. Badugu, alkate jauna eta abadiñarrok, gure herriak euskararen historian bere lekutxo. Oñatiko Arantzazuko Biltzarraren eduki, testu, agiri eta gainontzeko xehetasunez ez da zertan luzatu, askok ezagutzen dituzuelako eta bibliografia ugari dagoelako.

Aurretiaz, urte honen erdian, eskualde honen lau urietarik baten, Ermuan, hain zuzen, gertakizun garrantzitsua antolatu zuen Gerediaga Elkartek, gerra osteko euskal idazleen lehen Biltzarra. Ideia Juan San Martin eibartar, Euskaltzaindiaren idazkari eta elkartearen bazkidearena izan zen, helburu argi batekin, hots, udazkenean Arantzazu-Oñatin egiteko zen Biltzarra girotzeko eta idazleen iritziak entzuteko. Oso arrakastatsua atera zen Eskola Profesionalean antolatu zena, azpiegituran primeran portatu zirelarik ermuar bazkideak eta, aurrengo, Agustín Aranberria, ordezkaria. Ekainaren 28, 29 eta 30ean izan ziren biltzar-jardunaldiok, hizlari eta txostengileen artean, Juan San Martinez landa, Aingeru Irigarai, Jose Luis Alvarez Enparantza «Txillardegia» (exiliotik bidali zuen lana), Gabriel Aresti, Juan Antonio Letamendia, Salvador Garmendia eta Pierre Lafitte. Prentsa oharrak hau zioen, euskarazko egunkaririk ez baitzen orduan:

«Al final cerró dando realce a las reuniones, uno de los miembros más destacados de la Academia, el canónigo de Bayona y director-fundador de la revista *Herria* de Bayona, Pierre Lafitte. Se tomaron nueve acuerdos relacionados con la unificación literaria del idioma».

\* \* \*

## 12. Hamarkadako euskal prentsari begirada

Frantses Errepublikaren askatasun mugatua baino askoz okerrago geunden Hegoaldean, oso zaila baitzen euskara hutsezko prentsa ateratzea. Baiotan, Pierre Lafitte kalonje euskaltzainaren zuzendaritzapean *Herria* astekaria kaleratzen zen eta, oraindik, Dirassar euskaltzain urgazlearenpean jarraitzen du. Bazegoen bai *Egan* 1952ean euskaraz soilik ateratzen zena, baina *Boletín*

*de la Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País*-en literatura sormen eta kritika gehigarri gisako hiruhilabetekaria. Bestelako biak Aita San Franziskoren ordena biri esker ateratzen ziren, kaputxinoei esker, *Zeruko Argia* Gipuzkoan eta *Anaitasuna*, O. F. M.ri (*Ordinis Fratrorum Minorum*) esker. 1966ko «Ley Fraga» zeritzanak eman zuen zirrikitu bat, Katalunian eta hemen onura apur guztiekin baliatu zena.

*Zeruko Argia* 1919an, Euskaltzaindia martxan hasi zen urte berberean, sortu zuten kaputxinoek A. Damaso Intzako euskaltzain nafarraren ekimenez. Gerra Zibilean desagertarazia, 1954ean berriz argitaratzen da Aita Oieregikoren zuzendaritzapean, 1960ean, debekatu arte. Hamarkada honetan, 1963an hasten da hirugarrenez, informazio orokorreko astekari legez. Kaputxinoen esku egon arren, eskuzabal jokatu, idazle laikoak ere sartzen dira, adibidez, bazegoen gazte talde bat, zeinek «Gazte naiz» izeneko saila osatzen zuten, oker ez banago Ricardo Arregi, Ramon Saizarbitoria, Ibon Sarasola eta Mikel Lasak. Nik 1965tik 1968ra zenbait artikulu argitaratu nituen eta une batez Erredakzio Kontseiluko ere izan nintzen. Ez dago dudarik, hamarkada honen euskalgintzaren berri zehatza jakiteko astekari honen hemeroteca ezinbestekoa dela, euskal prentsaren historian urrezko zerrendan agertu beharko litzatekeena.

*Anaitasuna* aldizkaria Imanol Berriatuak, Foruan, sortu zuen 1953an; 1955-57 tartean, Alfonso Irigoienek ardurapean; «Jakín» teologo taldeak, Arantzazu-Oñatin, 1957-1966an eta, Bermeon, J. Azurmendiren zuzendaritzapean, 1967-68ko epean. 1969an hasi zuen martxa berria. Hara hor horretaz oraintsu zer idatzi berri duen Anjel Zelaietak:

«*Anaitasunaren* Zuzendaritzak (frantziskotarrak) eta zenbait laguntzailek hala eskaturik, 1968ko martxoan, Bilbo Zaharreko Torre, 3an, bildu ginen zenbait euskaltzale gazte. Josu Naberanek Anjel Zelaieta izena proposatzen du Zuzendari izateko, eta halaxe onartzen. .... azaroan, 60 apaiz (Zelaieta barne) Derioko Seminarioan hersten dira. Bizkitartean, Jose Luis Lizundia egunero dator Bilbora lanera (egun birik bat, egia esan), eta noizbehinka Galdakaoko Bengoetxen (zeinetan baitzen apaiz Zelaieta) gelditzen da, Zelaietari *Anaitasuna* argitaratzen ahalegin dadin eskatzeko».

Akulari lanean, beraz. 1969ko irailaren 15ean hasten du hamabostekari legez martxa berria, astiro-astiro, Bizkaitik Euskal Herri osora hedatzen hasten dena, euskara batuaren aldeko apustu argi eta garbia, zuzendari Zelaieta, zuzentzaile zorrotz eta zehatza Imanolo Berriatua eta Erredakzio Batzordea, zeinetan izan bainintzen luzaro eta jarduneko zuzendari ere hilabete bat inguru, Zelaietak izkutatu beharra izan zuelako. Jabegoa, ostera, frantziskotarrena zen, egoitza Durangoko Intxaurren kalean zuelarik. Xabier Gereño batzordekideak egindako txostenaren arabera: «Gure harpidedunak 1969 amaitu denean, 3.531 dira». Ezin da, orain, aldizkari honetaz luzatu zeren, laster, Zelaieta berak lan bat argitaratuko baitu: *Bilboaldeko euskarazko prentsa idatzia: 1940-1980-ren barruan «Anaitasuna (1969-1972) Barriro Lanean»* izeneko kapitulu-



luan. Bertan irakurri daitezke zeintzuk idazlek parte hartzen zuten eta zeintzuk ziren sailkatzen diren hoge gaiak.

### 13. Hamarkadaren amaiera eta berriaren hasiera. «*Ba dok amairu*»

Ondorio gisa, 60.hamarkada honek baditu, ene ustez, ezaugarri zenbait:

1. **Posibletasuna.** Diktadura zaharkitu eta usteldu batek, diktadore aguru bat aurrean zuelarik, ezinbestean, zirrikitu batzuk ireki zituen, hala nola, prentsan, 1964ko legea; elkarteak legezatzeko urte berekoa; irakaskuntzan, «*Texto refundido*» delakoa. Euskal kulturgintzaren dinamika bete-betean baliatu zen, «*la política del posibilisme*», Prat de la Riba katalan politikari handiaren hitzekin esan daiteken «*la política del posibilisme*», zirrikituotatik, uholde bezala gainezka jarri zuten Katalunia eta Euskal Herriko kulturgintzek, Administrazio bat eta bakarra.

2. **Hiritartasuna.** Gerra aurreko kulturgintza baserri gizarte bukoliko euskaldun baten oinarritzen zen, gehienbat. Oraingoa, ikastola nahiz alfabetatze, literatura nahiz hizkuntzalaritza, folklore nahiz kantagintza berri, prentsa nahiz elkarte mundua, hiriburuetatik edo hiri ertinetatik gauzatzen da.

3. **Zeharkitasuna.** Inoiz aipatu dudan gure hiri historikoetan Zeharkaleek hirigintzan jokatu izan duten interkomunikazioaren antzera, 60. hamarkadan atzeman dut uste izan den baino «*transbersalitate*» handiagoa. Kulturgizon/andre eta euskaltzale orok bakoitza bere «*kaletik*» soilik zirkulatu beharrean, maiz igarotzen ziren «*Euskal Zeharkaletik*». *Index Onomasticon* bat egiten denean argi ikusiko litzateke hori, nola Juan San Martin, Xabier Gereño, Alfonso Irigoien, Jose Mari Satrustegi, Gabriel Aresti, Carlos Santamaria, Pierre Xarriton, Jose Antonio Arana Martija, Iñaki Beobide, Joseba Intxausti eta beste asko ageri direla.

4. **Batasuna.** Bai kulturgintzan, orohar eta, bereziki, euskalgintzan ideia guztien gaineratik bazegoen batasun handia, frente bat. Agian, errazagoa zen Diktadura baten kontra, «*orquestra zuzendaririk*» gabe, bazegoen estrategia amankomuna. Hurrengo hamarkadan, batez ere ferrolarra ohean hil eta gero, sektariokerian erori ginen gehienok, noizbait, transizioaz autokritika sakona egin beharko dugu.

5.- **Naziotasuna.** Kulturgintzak, «*kultur frenteak*» esango zukeen F. Krutwigek, aurrelari, teoria politikoak eta politikakeriak baino lehenago eta haratago, hamarkada honetan gure naziotasunaren oinarri modernoak jarri zituela uste dut, aipatu alorretan nahiz bestetan.

Gai hauetaz baina, ez soilik 60ko hamarkadaz, saio interesgarriak eta txalagarriak egin dira –egile bi azpimarratzekotan Joseba Intxausti eta Joan Mari Torrealdai aipatuko nituzke– bai arloka eta baita bakarlanean. Gaur, hemen nik

esandakoak, hamarkadaren laburpena besterik ez dira. Ildo horetatik, hemen zaudeteno, ez bakarrik euskaltzain oso, ohorezko eta urgazleoi, baita ere, ikas-toletako irakasle eta eragile, alfabetatze-euskalduntze alorreko kanpainagile eta koordinatzaile, artista, idazle, bertsolari, unibertsitateetako ikerle eta argitale-txe arduradun eta gainontzeko euskal kulturagintzako lankideoi, dei berezi bat egin nahi dizuet elkarlanera gonbidatuz, honako gai orokorrarekin:

Hasi 60.hamarkadan, lehendabizi eta 70koan segi, gure kulturagintza eta, bereziki, euskalgintzaren barne-historia orokorra egitea, «zeharkitasun» baldintza ezinbestekoarekin.

Euskal Herriaren historiako eta belaunaldi berrien probetxurako mese-degarri izango litzatekeela, uste dut.

Idea hor dago eta, *hordago* horrekin, amaitu.

Eskerrik asko!

Esan dut.

## JOSE LUIS LIZUNDIA EUSKALTZAIN BERRIARI ERANTZUNA

*Jean-Louis Davant*

*Abadiñon, Gerediagako Salbadore  
batzar-etxean, 2004-VII-23an.*

Agur jaunak et(a) andreak, agur (e)t(a) erdi!

Oso despare daude Euskal Herriko bi hegalak. Iparrari begira zinez ezkerre, ezkertia, ezkerreta da gure lurra edo herria, halaber gure hizkuntza. Eskuinetik Zuberoako lurralde historiko txikia, «Zuberoa Herria» Athanase de Belapeire apez idazlearen hitzetan; bestetik Bizkaiko jaurreri erraldoia, gure metropoli nagusiarekin; Erkidego Autonomoko jendetzaren erdia, Euskal Herri osoko biztanleetan bostetarik bi...

Euskalkian askazi hurbilak ditu Gipuzkoa mendebaldeko zati zabala eta Arabako euskara. Bergarako Biltzarrean, duela hogeita sei urte, agertu zen euskaraz egin zezaketen erdia pasa, mendebalde horretakoa zela. Argi dago euskara batua ez zela haziko eta hedatuko, bizkaitarren eta kidekoen baimen eta oniritzia barik.

Ezen asko izateaz beste aitzakiarik balukete bizkaieraz edo horren hurbileko euskara batean elakutzen eta elestatzen diren hiztunek, elerraten dutenek: erdiko eta ekialdekoetatik oso urruti daudela hizkeraz. Horretan ere amore eman behar du zuberotarron harrotasunak: gu baino askoz ere diferenteagoak zarete mintzairaz bizkaitarrak.

Segurki besteetarik urruntzen da zuberera, bere azentu tonikoaz eta fonetika bereziaz. Baina idatziz gero, gainera grafia batuan, nafar kutsuko euskalkietarik hurbil agertzen da, bai Iparraldekoekin, bai Nafarroa Garai hurbileko eta ertainekoekin, Baztan eta Ultzamakoekin.

Urrunago gelditzen zaio gipuzkera, bereziki Basabürüko jendeari, beste euskalkietako euskaldunekin hitz egiteko usaia guti baitu (Arbailan eta Pettarrean ohitura gehiago dugu), eta duela guti hango nire askazi batek erraten zidan kasik beste hizkuntza bat zitziola gipuzkera, hiztegi bederen. Zer erran lezake beraz bizkaierari buruz?

Balkanetan bagina, lau euskal hizkuntza bagenituzke gutienez. Baina, Jainkoari eskerrak, Pirinio mendien altzo eta magalean gaude. Batetik ez daude gure bi lurraldeen artean, iparraldetik dago Bizkaia, jende askok ez jakin arren Euskal Herrian ere.

Bestetik ez dira uste den bezain bereizle. Horren adierazle dira Nafarroako bi zatien arteko loturak, Zuberoak Iruñeko erregeekin Erdi Aroan atxiki zituen harremanak, eta urrunago Euskal Herriak eta Kataluniak duten elkarrekiko adiskidantza iraunkorra.

Aldiz bereizle ditugu Frantzia eta Espainiako Estatuak, beren joera eta prentziona jakobinoekin. Zorionez Europar Batasunak abantaila bat bederen ekartzen digu, muga hori murrizten digula, eta balia gaitezen, gure arbasoek egin ohi zuten bezala.

Zinez despare izanagatik, elkarrenganako deia badute bi hegalek, eta diferentzia horien gainera, hizkuntzan ere halako kidetasun batzuk agertzen zaizkigu, iduriz bitxiak, adibidez hiztegiak, *arrasti(ri)*, *natibitate*, eta beste mordo bat. Zelan esplikatu daitezke? Arkaismoari zor ote dizkiogu? Erdikoak diren gipuzkera, lapurtera eta nafarrera mota nagusien ingurutik, idazleek gutiago landu dituzten periferiako euskalkien katea egon ote da, Bizkaitik Beskoitzera inokoa, Araba, Nafarroako erdigunea, Zuberoa eta Garazi, Oztibarre-Amikuzeko eskualdeen gaindi? Haatik arrazoi sakonena izan daiteke aita Villasantek errepikatzen zuen hau: «edonon eta beti, euskara da euskara».

Dena dela, hor dago bi hegalek elkarrenganako tirria, irrika, eta pentsu dut horren izenean hautatu ninduela Jose Luis Lizundia bizkaitar euskaltzain berriak, gaur berari errefera emaitzat, euskalgintzan aspaldiko lagunak izanez gainera. Ohore handia zait, eta plazera ere bai.

Bi hegalek arteko kidetasun horrek ez du baztertzeko, jakina, erdigunearen garrantzia; zubi bezala ere hor dago, beharrik. Bidasoan topo egiten baitute gaurko Euskal Herriak dituen hiru eskualdeek, hizkuntzan ere hor dago batasunerako bilgunea, Koldo Mitxelena erakutsi zigun bidetik: hortik dator kigu gaurko euskara idatziaren hamarretarik zortzia bederen. Baina beharrezkoa zaio inguruko euskalkien ekarpen osatzaile, kualitatibo eta katalizatzailea.

Beraz euskal hizkuntza bakarra dugu, eta hori dela eta, euskara batua ere badugu, bizkaitarrei esker parte handi batean.

Baimen eta oniritziak besterik ekarri digute: beren laguntza osoa, elkarlan handi batean. Gainera, ene ustetan behintzat, bizkaitar idazle batzuk dira euskara batutik hurbilen dabilzanak lapurterari aski leku emanez. Horretan aitzindaria zuten, eta genuen aita Villasante, Arantzazuko fraidea naski, baina gainera, euskara batuaren eraikuntzan gure gidaria hamazortzi urtez.

Villasanteren ganik hurbil egon zen beti Lizundia, haren aholkuen obratzaile. Bisirra behar du kalifak, eta Bisir fidela izan zinen Jose Luis, beti Eus-

kaltzainburuaren laguntzaile, Erakundearen eta euskararen zerbitzuko, euskara batuaren langile sutsu eta iraunkorra. Euskaltzainditik at ere hizkuntza zerbitzatu zenuen pizle, antolatzaile, sustatzaile, ikertzaile, baita idazle bezala, ikusiko dugunez. Baina hastetik has gaitezen.

## **ABADIÑOKOA**

Iruñean sortu zen Jose Luis, kasualitatez, amak momentuko lana han edukiz. Gaur nafar baten ondoko dago euskaltzain oso. Berak badaki, eta maiz oroitarazten du, Nafarroako erresuman egon zela Durango alde hau, Gaztelako erregeak Antso Azkarrari hartu arte 1200 urte inguruan eta geroxeago Bizkaiko jaunari eman, Las Navas de Tolosako guduan ekarri zion laguntzagatik.

Predestinazioan ez dut sinesten, baina zorteak badu batzuetan halako umore bat, ironia ez delarik. Haatik kasu honetan «umore» hitza hobetsiko dut, baikorra delako naski gaurko biltzarra bezala. Ez zinen Iruñean zahartu, lau hilabeteetan herri honetara itzuli zinen amarekin, eta geroztik ez zara hainbat hemendik urrundu.

Egia da gaur Durangon bizi zarela, amaren etxetik bizpahiru kilometrotan. Ez da bide luzea, eta ez zait iduri autobidearen zeharkatzea gaizkitzat jo dizuenik Abadiñoko herriak, itxura guzien arabera, eta beraz arrisku handirik gabe oihusta dezaket, aldarrika dirot, abadiñar peto-pettoa zarela, baserri mundukoa gainera, hori baitzen zure haurtzaroan hemengo mundua, etxalde txikiz osatua.

Langilea zen ber denboran mundu hori. Etxalde xume horietan, eremu eskasak eman zezakeen mozkin mugatua, bazterretiko emendio baten behar eta premian zegoen. Aukera hori ekarri zuen Eibarko industriak. Batetik fabrika bat eraiki zuen Durangon, eta horretan behargin eta langile sartu ziren zure hiru osaba. Bestetik Eibarrerako treina egunero hartzen zuten zure bi lehen-gusuk. Ez ziren bakarrak naski, eta horrela honaraino iritsi zen Eibarko sozialismoaren arnasa, bide laburrez naski, hamasei bat kilometrotan osta-osta, doi-doa. Hats hori ere hemengo kulturaren dago, eta bereiziki zurean, Jose Luis.

Ikasketak Abadiñoko eskolan hasi zenituen, bederatzi urteetan, Durangon jarraitu fraide maristen ikastetxean, gero merkataritzan ikasi hor, azkenik batxiller osoa lortu Bilbon, lan eginez bestalde.

## **EUSKALTZAINDIKO «MAKINISTA»**

Lanbidean ere, herritik ez zinen gehiegi urrundu. Udal idazkari lanetan ari izan zara zortzi urtez (1963-1971), lehenik Durangon, gero Garain eta Mañaria-Izurtzan, azkenik udal elkartean.

Ez dakit horri esker ote den, baina beti errespetu handia diezu instituzioei, bereziki demokraziaren oinarriak eta zutabeak diren udalei. Halaber zorrotasun handia ikusi dizut beti legeari dagokiola; zehaztasunaren kezka zuzenbide, eskubide, eginbide sailetan; eta formen ardura nabaria. Beraz legegizon bat bezala ikusten zaitut orokorki, baita Euskaltzaindian, gai akademikoetan eta euskarari begira ere.

Duela hogeita hamabost urte sartu zinen Euskaltzaindiko idazkariorde, eta kargu horri gehitu zizun Akademia honek bere kudeatzailegoa, duela bederatzita urte. Xehetasunetan sartu gabe, luzeegi bailitzateke, zer izan da hor zure lana?

Kalifaren bisirrari konparatu zaitut oixtion, baina errazkeria horretan ezin naiz gelditu. Villasante «gure kapitaina» zela erran zenuen behin, «buru oso instituzionala zuela», baita «izan zuela urte txarrenetan pilotu bat: *Iker* sailburua, Mitxelena. Hor norbaitek galdetu zizun:» «Eta hi?». Zu isilik egon zinen. Laster galderaren egileak berak eman zizun erantzuna: «Hi makinista!».

Beraz gure makinista izan zara denbora luzean, eta zuk zeuk erranik, botileroa ere behin bederen, Bitoriano Gandiaga zenarekin, 1972an Arantzazun aditz batuaz egin ziren Jardunaldietan, eta badakigu pelotan botileroak izan dezakeen garrantzia, bereziki momentu txarretan.

Eta nola ikusten zaituzte euskaltzainek? Erantzunik onena da gaurko sarrera hau. Ez zaitu Akademiak ustekabeen deitu ispiluaeren beste alde honetara.

Nik ene alde xumetik nola ikusten zaitudan, ez lagun bezala, baina Euskaltzaindiko kargudun bezala? Erantzun baten bidera, irudi pare bat ekartzen dit frantses literaturak: batetik «la statue du Commandeur», bestetik «l'oeil de Cain». Lehena Molière-ren *Don Juan* komedian agertzen da, bigarrena Victor Hugo-ren *La légende des siècles* epopeian. Begi hori ez da batere Kain-ena, oso aitzitik Kain-i begira dagoena da. Hots Euskaltzaindiaren kontzientzia bezala ikusten zaitut nolabait. Kontzientzia ez da beti gauza goxoa, baina beharrezkoa bai.

Kontzientziarekin dabil oroimena: hori ere adierazten dute aipatu berri ditudan bi figurek, gure hutsez oroitzea, haien ez berritzeko. Euskaltzaindiaren memoria zara, eta zerbitzu handia ekar dezakezu geroari begira. Oso guti gaudede gaur Akademian Koldo Mitxelena zenarekin lan egin dugun euskaltzain osoak. Izendapen urtez ni neu seigarrena naiz, beraz oso gazteak dira besteak, iraganaren berri eman behar diegu, eta zuk gehienik, dena barnetik, luzaz, etengabe bizi izan baituzu.

## EUSKALGINTZAN

Euskaltzaindian egin duzun «makinista» lan horrek ez du baztertzen aurretik eta ber denboran ere pertsonalki euskalgintzan bete duzun lekua. Goi-

zik hasi zinen, horren lekuko dugula 1961ean Euskaltzaindiari helarazi zenion gutuna. Euskararen batasunaz zenuen kezka, egutegian 12 hilabetentzat 39 izen aurkitzen baitzenituen!

1964an gerra osteko lehen irakaslea izan zinen euskaraz Durangon, Euskaltzaindiaren oniritziar, Santa Anako parrokian, gero Uriko Eskolan.

1966an euskaltzain urgazle izendatua zinen, eta 1967an euskaraz irakasten hasi zinen alfabetatze kanpainan, Euskaltzaindiaren babesean, Rikardo Arregik 1966an Gipuzkoan ideki zuen bidetik. Zuharek diozun bezala:

Rikardo Arregiren bidez Donostia aldeko jendearekin jarri» zinen harremanetan. Beste dimentsio bat eman zizun: jende harekin izan zenituen harremanak, garai hartan isolamendua handia zen eta(...) Euskalgintzan, zaila zen Donostia-koak eta Bilbokoak elkarren berri izatea. Euskaltzaindiko biltzarrak, esaterako, oso gertakizun bakanak ziren. Leku batetik bestera mugitzea zaila zen. Ez zegoen erakundetzerik. (...) Harremanak zailak ziren 60ko hamarkadan. Frankismoa batetik, eta harreman instituzionalik ez, bestetik.

Bai, egoera gogorra zen Hegoaldean. Iparraldean berriz ezazolkeria, hotsa, etsaigoa ere maiz, oso maltzurra.

Euskalgintzan egin dituzun guztiak, ukan dituzun karguak ez ditut aipatuko banan-banan, luzeegi litzateke, *curriculumean* agertuko dira.

Haatik ezin dut isilpean utzi Gerediagaren inguruan egina. *Gerediaga* Elkartearen guraso bat izan zinen, aldizkariaren zuzendariordea, eta geroztik instituzio erraldoia bilakatu den Durangoko Euskal Azokaren sortzaile.

Halaber *Anaitasuna* astekarian hartu zenuen parteaz, bai erredakzioko baztordekide bezala, bai zuzendariorde bezala, hor agertu zituen idazlanak eta mapak bestalde, idazleari dagokion zatian aipatuko baitut.

Hirugarren obra handi bat ezin dut ahortzi, Euskal Idazleen Elkar-tea:1982ko uztailearen 30ean sortu zen, Euskaltzaindiaren babesean. Lehen egoitza Euskaltzaindiak ordu hartan zuena, Ribera kalean. Eragile nagusia, Juan San Martin euskaltzaina, *Jagon* sailburua. Idazkaria zu, Lizundia. Beste zutabeak, Arana Martija eta Jose Mari Velez de Mendizabal.

Udako Euskal Unibertsitatearen sorreran ere parte hartu zenuen Euskaltzaindiarekin. Honek lehen urtean, uztaileko biltzarra karia horretara Donibane Lohizunen egin zuen, eta hirugarren urtean Uztaritzeko Landagoien biletxean. Gero Hegoaldera pasa zen UEU Euskaltzaindiaren babesean: antolakuntza egin zenuen Juan Jose Zearretarekin.

*Arrate* irratian parte hartu zenuen 1964an, astean hiru bider, Madrilek isilarazi arte. *Zeruko Argian* ere partaide izan zinen, bereziki Rikardo Arregi, Ibon Sarasola eta Ramon Saizarbitoriarekin.

Bizkaiko «zona pastoralen» mapagintzan eskua sartu zenuen. Zure ezkontza egunean ofizial egin zuen Jose Mari Cirarda gotzainak, eta zu bi leketan ezin izan: hitz bat igorri zizuen esposo berriei, 1969ko urriaren hameka horretan.

Ezkontzeko ere ez zinen gehiegi desterratu, eta nik uste ondo egin zenuela, itxura guzien arabera. Zergatik urrun joan, ez dakit nondik, eta noren bila, hortxe bertan zegoelarik, Garai herrian, Lourdes Etxeita andrea, Leiore bion alaba ekarriko zizuna? Ez nintzateke harrituko zuhurtzia balego zure bertute handiena, eta baliatzen ahal zaigu Euskaltzaindian ere.

## IDAZLEA, IKERTZAILEA

Euskara batuaz gain, beren euskalkia lantzen dute, zuberotar eta nafar batzuek bezala, bizkaitar idazleek, horietan Lizundiak. Bizkaiera batuaren aldeko apostua egin du aspaldian, azpi-euskalkiak elkarganatu eta grafia berria erabiliz horretan ere.

Begien aurrean dut 1975eko urriaren 31an *Anaitasuna* aldizkarian, Durangoko Azokaz agertu zuen artikulua, «Azokak hamar urte» deitua. Bizkaiera osatuan idatzia dela erran nezake. Begietara heltzen zaidan lehen irudia, grafia batua darabilela, H letra barne, zerbait handirik baitzen hori denbora hartan! Bergarako Biltzarra baino hiru urtez aitzinetik zen, baina Baionakoaren ondoren, 1964ko abuztu bukaeran egin baitzen hura, Lafitte zenaren babesean, besteari bidea irekiz, eta haren aholkuak betetzen ditu Lizundiak bere artikulua horretan.

Egunkari eta aldizkari andana batean idatzi duzu, bai erdaraz bai euskaraz, nagusiki batuan, bereziki *Anaitasuna*, *Euskera*, *Jakin*, *Punto y Hora de Euskal Herria*, *La Gaceta del Norte*, *Egin*, *Deia*, *Correo*, *Diario Vasco*, *El País*, *Enbata*, *Herria*, *Euskaldunon Egunkaria*, *Eraz*, *Anboto*...

Ikertu dituzun gaiak: Politika, baina gehienik euskara, Toponimia, Geografia, Historia. Toponimian agertzen duzu jakituria berezia, elkarri lotuz herria eta hizkuntza, lurra eta euskara, hots, garen bezalako egiten gaituzten bi oinarri nagusiak. Horretan aditua zarela erran dezaket, hiztegia batere behartu gabe.

Iparraldeko lurralde txikien ezagutza sakona ikusi dizut askotan, adibidez kantonamenduen mugez, eta haien artean egin behar litezkeen zuzenketez.

Frantzia beherekoen ere jakitun zara, lehengo probintziez eta lau ehun «pays» xumeez, haien izen, hiriburu, historiaz beti kurios eta jakin-minez, askotan ikasia.



Gai horiek usu aipatu dituzu beraz kazetetan, adibidez *Herria* astekarian.

Badut hemen gu bion arteko oroitzapen baten lekuko, *Enbatan* 1965eko udan agerturiko zure artikulu baten fotokopia: Hazparneko ikastetxera etorri zinen hartan eman zenidan kazeta horretara helarazteko. Frantsesez agertu zen. Pentsu dut gaztelaniaz idatzi zenuela eta nik itzulpena egin nizula. Euskal departamentuaz da zure idazlan hori. Geroztik *Herria* astekarian behin baino gehiagotan aipatu duzun gaia da naski.

## **HIRUROGEIKO HAMARKADA IPARRALDETIK**

Hegoaldera begira ginauden Iparraldeko euskalzale gazteok. Han berpizkunde baten hasiera sumatzen genuen. Gainera Francorena laster bukatuko zela uste genuen. Europa batuaren ametsa bagenuen indartsu. Orduan sortu zen Enbata mugitu politikoa, ber izeneko kazetaren ingurutik. Euskal arazoan konpontzeko, konfiantza handia genuen abertzale politikan.

Halere kulturaren ere saiatzen ginen, horren lekuko Larzabal eta Montzonen antzerkia, laster Daniel Landart-ena, kantugintzan Soroak taldea, Mikel Laberie, Eñaut Etxamendiren lehen kantuak, Goiztiri argialetxea... Lekua kantariak egonaldi bat egin zuen Iparraldean, Etxamendiren berotegietan lan eginez beste hegoaldiar batzuekin...

Gutartean zegoen ere 'Txillardegik', belaunaldi berriko lehen iheslaria. Haren lehenbiziko eleberriak ezagutzen genituen batzuek, Gabriel Aresti-ren olerki liburuak ere hartu genituen.

Euskara Batuari buruzko bilkurak astero eratu zituen Txillardegik Baionako Euskal Idazkaritzan, Kordelieren karrika sonatuan, *Herria* astekariaren alde gainean, Enbata eta Goiztiriren aldamenean. Batzar horietan parte hartzen zuten iheslari batzuek, dela Jeltzaleek (Solaun, Monzon, Retolazak), dela Etakideek (Txillardegik, Iulen Madariaga, Iñaki Irigarai), baita Iparraldeko euskalzale batzuek (ni neuk astero, noizean behinka Roger Idiart, Pierre Andiazabal eta Hiriart-Urruty apezek). Sail hori bukatu zuen Baionako Biltzarrak, Euskal Idazkaritzaren egoitza horretan, 1964ko abuztuaren azken bi egunetan, Piarres Lafitte-ren ardurapean. Euskara Batuari buruzko lehen urrats eta pausoak egin ziren hor, bereziki grafian. Gero Euskaltzaindira joan ziren proposamen horiek, eta ondorioa badakigu, bereziki 1968ko udan eratu zen Arantzazuko Biltzar handiarekin.

Gauza xumeago bat ere egin zuen Euskal Idazkaritzak, urtero Lauaxeta sariaren ematea euskal idazle bati: 1964an ukan zuen Juan San Martin-ek (ez zen oraino euskaltzaina uda hartan, 1964ko abenduaren 12an izendatuko zuten), eta Rikardo Arregi gazteak, kazetari lanagatik, 1965ean. Ber urtean Li-

zundia-ren ezagutza egin nuen, Hazparneko ikastegira burutu zuen txango bati esker.

Bai, zinez emankorra izan zen, Iparraldean ere, hirurogeiko hamarkada hori. Orduan esnatzen eta mugitzen hasi zen gaur hain gaztea ez den gure belaunaldi hau, harremanak lotuz euskalgintzan mugaren alde honetakoekin: Mendebaldekoekin jakina, baina Hegoaldekoekin ere, hots Nafarroa garaiko euskalzaleekin. Arras ongi oroitzen gara emaztea eta ni, 1966ko udan Iruñeko parte zaharrear egin genuen bisita batez. Gidari genuen Donapaualeko Helene Gueraçague, Iruñean irakasle zena. Horko euskaltzale batzuekin harremanetan ezarri gintuen. Elkarrekin bisitatu genuen, katedral ondoan, barne xahar, hits eta txiro bat. Hor ireki beharra zen ondoko asteetan Nafarroa Garaiko lehen ikastola, hamar bat haurrekin. Han ere egin dute bide, nekezien gainetik.

Beraz hamarkada emankorra Euskal Herriko hiru eskualdeetan. Haatik ez zen erraza izan, horren adibide onena dugu bukatu zuela Burgosko auzi famatuak.

## **POLITIKAN**

Euskal politikan ere sartu zinen zuzenean. Lehenik ez dezaket ahantz E.H.A.S. alderdian parte hartu genuela biok, duela hogeita hamar urte hasirik, oraino bizi zela Franco jeneral eta Caudilloa. Gero zuek Mendebaldean, autonomia lortu zenuten, eta zuk hemengo instituzioetan parte hartu zenuen hautetsi karguetan:

- Bizkaiko Batzar Nagusietan hiru aldiz, hiru legealdi osoz 1979-1980, 1987-1991, eta 1991-1995, hor kargu bereziak betez.
- 1980an Eusko Legebiltzarrean parlamentari, bigarren idazkari, lege gaietan ponente, Gernikako Estatutuaren 6. artikulua zirriborroan idatziz, bi proposamen hauekin: bata Euskaltzaindia erakunde ofiziala izango zela Estatutuan idatzita egon zedin, bestea Nafarroa eta Iparraldearekin harremanak ukaiteko aukera izan zedin Estatutu horren arauetan.

Baina politikari ohia izanarren, kultura lehen dela diozu argi eta garbi, Federico Krutwig zenaren ondotik.

Politikari askoren kultura eskasa ere salatzen duzu, eta nire ustez oso zuzen zaude. Ezjakin bati arma baten ematea, zinez arriskutsua da. Jendarte zibilizatu batean, aginte politikoaren esku egon behar dute armek, horretan legitimitatea legebiltzarrek eta gobernu demokratikoek dute. Hori behar da, haatik ez da nahikoa, legitimoa izatea ez da nahikoa, boterea ez da aski, aha-

la ere behar da, eta egiazko ahala, sakona eta iraunkorra espiritutik badator. Hori errepikatu behar diegu naski gure hautetsiei, behin ere amore eman gabe.

## **EUSKALDUN FEDEDUN?**

Marratxoa behar ote da bi hitz horien artean? Ala koma bat aski da? Ala bi hitzak solte utzi behar dira, beren artean ezer barik? Gai akademikoa izan daiteke hau ere. Haatik ene kaxa, uste dut loturarik ez dela hor, zeren norbait izan daiteke euskaldun eta fededun, beste bat euskaldun eta ez fededun, hirugarren bat fededun eta ez euskaldun, baskoa izanarren.

Haatik ez genuke punta batetik bestera joan behar, eta arrisku hori gaur ikusten dut belaunaldi gazteagoen baitan, batzuetan iduri bailuke fededun izatea oztopo bat dela euskaldun ona izateko. Euskal kazeta batean irakurria dut berriki galdera bat harrigarria: nolaz fededun izan daitekeen, edozein erlisiontan, pertsona jakintsu bat? Horrelakorik ez nuen orain arte sekulan entzun, ateo militanteen ganik ere!

Iduri luke integritismo batetik bestera pasatzen ari dela, ustekabean, Euskal Herriko inteligentziaren zati bat: zuritik gorrira, edo beltzera...

Fededuna den ala ez Jose Luis Lizundia, berak jakingo du, ez da ene afera. Baina gauza bat segurra, ez da integrista, ez da jansenista, pentsakera gutietako pertsonekin lan egiten du arazorik gabe, hori baita beharrena, bereziki Euskaltzaindia bezalako erakunde batean.

Azpimarratu beharra dago, inolako zatiketarik ez dugu euskaltzainon artean erlisionagatik, ez eta politikagatik ere. Euskara dugu hor barnean politika bakarra. Oinarrizko puntu premiatsuen horretan denok bat gaude. Eskerrak zuri bereziki, Lizundia, sail eta maila horretan beti eman duzun etsenplu onagatik.

## **GEROARI BEGIRA**

Oroimena ez da iraganari begira egoteko betaurrekoa, baina geroa haz dezakeen iturria. Oso baliagarria zaigu Lizundiaren esperientzia, eskarmentu sakon eta luzea. Barrenetik bizi izan du Euskaltzaindiaren ibilera, hogeita hamalau urtez. Bukatzen ari zaigu historiako epe bat, garai emankorra, Villasanterekin lehenik, Haritschelharrekin gero. Euskara Batuaren oinarriak ediren eta finkatu ditu lehenak, xinaurri lanez, aitasunez, kemen apalez eta diplomazia zuhurrez. Erakundeari behar zuen ospea eman dio bigarrenak, plazaratuz, plazagizon sutsu eta noble baten eginbidea betez ederki. Biek ekin dute jakina euskaltzainon laguntzarekin, eta bereziki Lizundiaren gain bermatuz.

Orain zer egin behar du Euskaltzaindiak, Euskal Herriko bi legebiltzar eta gobernuek, hiru eskualdeek eta bost probintzia edo departamenduek, gehi Unibertsitate publiko ala pribatuek egin ez dezaketenik? Zer norabide hartu behar du? Nolako Euskaltzaindia, zelango euskaltzainak eta zer kopurutan behar ditu euskarak, biharko Euskal Herriak?

Ni Euskaltzaindiko zaharretarik naiz orain, hogeita hamar urte baituke laster euskaltzain oso izendatu nindutela: beraz ez naiz luzaz egongo. Gazte-agoak behar dira, eta bereziki emakumeak. Erreforma sakonen beharra ikusten dut, eta ez naiz bakarra. Horiez gogoeta sakonak egingo ditugu nik uste euskaltzain guztiok elkarrekin. Hor gako eta giltza baliosa izanen zaigu, Lizundia, zure oroimena, ikuspegi seguruekin.

Esker mila zuen arretaz eta pazientziaz. Agur jaunak et(a) andreak, agur (e)t(a) erdi!

## JOSE LUIS LIZUNDIA-ren SARRERA MINTZALDIAN

*Abadiño, 2004-VII-23*

*Jean Haritschelhar,  
euskaltzainburuaren hitzak*

Jose Luis adiskidea.

Entzunik zure sarrera-mintzaldia eta Jean-Luis Davant-ek eman dizun erantzuna, euskaltzainburu naizenez gero ez zaitut utziko bi hitz erran gabe.

Badu orain, 35 bat urte elgar ezagutzen dugula, elgarrekin lanean ari garela. Orain zor dizut ene lelukotasuna, publikoi, zure ama ohoragarriaren aitzinean eta hemen zure ohoretan bilduak diren agintari eta herritarren aurrean.

Gutartean sartu zinelarik idazkariorde gisa berehala orduko euskaltzainburuak, Aita Luis Villasante-k galdegin zizun txosten bat Euskaltzaindiaren egitura berri bati buruz. Hala egin zenuen. Uzten diot hitza Aita Villasante-ri, Donostian 1970.eko azaroaren 27-an, berau aurkeztu zuen txostenaren zati bat eskainiz:

Gure idazkari-ordeak, bada, neuk eskaturik, halako planifikazio bat egin dit, eta gure gauzen martxarako prozedura lege batzuk, hots, ibilpide legeak edo arauak ezarri ere bai. Nik uste dut horrelako zerbait behar beharrezkoa dugula (disziplina baten barruan jokatu eta ibiltzea, alegia), gauzak behar den pulamenez eramateko.

Lizundia jaunak honela sailkatzen du gure Euskaltzaindiaren eremua. Euskaltzaindiak hiru sail ditu: *Lehenbizikoa*: Euskaltzainburugoa (Directiva). *Bigarrenena*: Batzordeak (Comisiones). *Hirugarrena*: Ordezkaritzak (Delegaciones). Bigarrenena eta hirugarrena Araudiak dion *Iker-Saila* (Sección filológica) eta *Jagon-Saila* (Sección tutelar) izango lirake guti gora behera behintzat. Dakizuten bezala, bi atal hoietaz osatua da gure Euskaltzaindia (1).

Orduan, zure egitasmoari esker sortu zen Euskaltzainburugoa, orain Zuzendaritza deitzen duguna, sortu ziren batzordeak, sortu ere ordekaritzak: Donostian lehenik, Gasteizen eta Iruñean gero, Baionan azkenik. Azken mende

---

(1) *Euskera* XVI, 1971, 124.or.

laurdena hartuz, neurt daiteke bost batzorde nagusiek egin duten lana, Hizte-gigintzan, Gramatikan, Dialektologian, Onomastikan, Literaturan. Aldi bat bai-no gehiagotan aldarrikatu dut ez dela sekulan hainbeste lan egin Euskaltzain-dian batzordeeri esker egiten den bezala, disziplina baten barruan jokatzu eta ibiliz. Zilegi bekit ere erraitea nola elgarrekin, euskaltzainburu nintzela, as-matu eta aurkeztu genuen organigrama berritua.

Aipatu nahi nituzke ere zu, ez bakarrik idazkari orde, bainan ere gero-geago kudeatzaile gisa Euskaltzaindiak egin dituen Biltzar Nagusi eta kong-resuak. Batzu gogora heldu zaizkit: Arantzazuko kongresutik landa Bergara-koa, Munduko euskalarien kongresua Gernikan eta Leioan, A. Campionena Iruñean, Oihenartena Maulen eta Donapaleun, Euskara Batuarena Euskal He-rriko Unibertsitateko Leioako Campusean, Anton Abadiarena Hendaian, azke-na Bilbon eta Baionan R.M. Azkue, J. Urkixo eta P. Lafitte-ri eskainiak.

Biltzar Nagusi horiek ederki joan dira, halaber bertze jardunaldi eta be-reziki Barne-Jardunaldiak zuk, batzorde eragile buru gisa, ongi apailatu baiti-tuzu biltzarkide bakoitzak ukaiten zituela beharrezkoak diren eguneroko erraz-tasunak hobeki lanean aritzeko.

Ez dezaket ahanztz ere parte hartu duzula Euskaltzaindiaren Arautegiaren berritzean, bereziki 70-eko hamarkadan, bai Euskaltzaindian eta bai Madrilen 1976-eko otsailaren 26-eko Erret Dekretuak ezagutzen zuelarik Euskaltzaindia Erret Akademia gisa.

Beti leialki, zintzoki, eraman duzu zure lana zerbitzatuz ezagutu dituzun bi euskaltzainburuak, Aita Villasante eta ni, euskaltzain guziak lagunduz be-harra senditzen zutelarik. Hainbeste denbora Euskaltzaindiaren zerbitzuan, hainbeste lan eginik, nola egon behar ziren eskergabeak euskaltzainak. Ordua etorri delarik, J.M. Satrustegi euskaltzain zenaren alxian izendatu zaituzte eta gero Arana Martija-k utzi duelarik bere kargua, sartu zara hain ongi ezagutu duzun Zuzendaritzan, diruzain gisa, dakizun bezala hori izan baita enetzat poz haundia.

Eta orain, Araudiak manatzen duen bezala, Euskaltzainburuak eskaintzen dizkizu bai diploma eta bai domina, haiekin doala adiskidantzazko besarkada.

## GEREDIAGAKO SALBADOREN

*Jose Luis Lizundia Askondo,  
euskaltzain osoa*

*Abadiño, 2004-VII-23*

- 1 Astarloa, Humboldt, Elgezabal  
ta gaurkoan **Lizundia**  
**Durangerrian** euskerarentzat  
Benetan egun handia  
**Durangerrian** euskerarentzat  
Benetan egun handia  
Astarloa, Humboldt, Elgezabal  
ta gaurkoan **Lizundia**.
  
- 1 Zortzi jantzari nonbratu dabez  
**Geredijako** zelaian  
**Traña-Etxenausi**, Euskaltzain oso  
Guztiok ondratu nahian  
**Traña-Etxenausi**, Euskaltzain oso  
**Geredijako** zelaian.
  
- 2 **Garaijen** bizi eta ezkondu  
**Mikel Etxeita** mutille  
Makiñatxo bat ibiliko da  
Holakoixe baten bille.
  
- 1 **Luis Mari Goiti Ormetzekue**  
Periko **Mañarijako**,  
Batera ero bestera deittu  
Horri bardin-bardin jako.
  
- 2 **Jose Antonio Azkarraga** da  
**Bitano Ixurtzakue**,  
Etxera erun gure dabenak  
Konpromixorik bakue.

① (\*)

② (\*)

(\*) Honek koplak doinu batuz edo besteaz kantiatu ziren.



- 1 **Berriz** aldetik etorri jaku  
**Narbaiza Jose Alberto**  
 Jantza taldie etaraten be  
 Nahiko burukomin deko.
- 2 Hor da **Ramontxu Zarrabeitia**  
 Jantzari ta jantzazale  
**Abadiñon** be jantzari-jantzan  
 Badakijien señale.
- 1 **Javier Etxeita** dator ostien  
 Gixon taket baltzarana,  
**Garaiko** puntan euzki epela  
 Hartu bakue eztana.
- 1 Urkiolako pago-ondue  
 ta **Atxarteko** harrije,  
**Olondokuen** besuek baño  
 Gogorrauek die ije.
- 1 Santamañako **Gaztañatzatik**  
 dator **Mikel** Gixon Ona  
**Ijorretako** alkate jaun be  
 ona ixengo litzona.
- 1 Zortzi jantzari nonbratu dabez  
**Geredijako** zelaian  
 Traña-Etxenausi, Euskaltzain oso  
 Guztiok ondratu nahian  
 Traña-Etxenausi, Euskaltzain oso  
**Geredijako** zelaian.

*Beñat Gaztelurrutiak eta  
 Antton Mari Aldekoa-Otalorak  
 paratu eta kantaturiko koplak*

## AKADEMIAREN EKITALDI AMAIERAN

*Jose Mari Iriondo,  
aurkezlea*

### ***Banango zaharra***

*Angel Arkarazo  
Jose Antonio Azkorbe*

Durangerrian hain ezaguna den Dantzari Dantza edo Ezpata Dantza osatzen duten 9 dantzetatik aparte bada, ohorezko agurra legez erabiltzen dena: *Banako zarra* deritzona. Herriko jende xeheak –ez agintariek– egiten zituzten ospakizunetan dantzatzen zena (dantza zibila).

Auzoko jaietan eta Meza ondoren ohi zenez, bertako mutil talde batek *Soka Dantza* egiten zuen bertara neskatilek gonbidatuz. *Aurreskuak* eta *Atzeskuak* aukeratzen zituzten neskatilei ohorezko agurra egiteko eta orduan dantzatzen zuten *Banako zarra*.

Beraz, herritar arruntei eskainitako ohorezko *Agur Dantza* bat. Horregatik dantzatu nahi izan diogu Jose Luisi, bere lagunok, herritar xumetzat daukagulako.

\* \* \*

### **Instituzioen opariak:**

1. Abadiñoko Udalaren izenean, Javier Uriarte, alkate jaunak, herriko ezaugarririk esanguratsuenetako bat den *Muntsaratz* dorretxearen irudia eskaintzen dizu.

\* \* \*

2. Garai, Izurtza eta Mañariko udalen oparia.

Kontuan izanik Jose Luis Lizundia Askondo jauna, Garai, Izurtza eta Mañaria udaletako idazkaria izan zela 1961-1971 urte bitartean, ohorea da, herri horien izenean, oroigarri hau ematea, udalotan eginiko lanegatik:

Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako baseliza askotan, Durangerrian, Argiñetan, adibidez, ohitura dute jaietan *kofradia bazkaria* egitea. Horrelako bazkarietarako ontzi edo bajilla bereziak izaten dira irudi eta izenak daramatzatela. Gaur egun horrelako ontziak. Legutiano-Ollerietako Euskal Zeramikaren museoa ikusi ahal dira.

Pitxar berri hauetariko bat da Garai, Izurtza eta Mañaria udalek eskaintzen dizuten oparia. Hala irakur daiteke: «Jose Luis Lizundiari iturri zaharretik ur berriak zabaltzeagatik gure herrietan».

Jose Loizate, *Garaiko* alkate jaunak,

Iker Ajuria, *Izurtzako* alkateorde jaunak,

Javier Arteaga, *Mañariko* alkate jaunak.

### 3. Gerediaga elkarte

Larrea bere aitarekin hasi zen lanean santugile bezala, aitonak Bilbon sortutako lantegian. 1967an, aitaren lantegia utzi eta bere kabuz hasi zen lanean eta hartu zuen lehenengotako lana Gerediaga elkartearen enkargu bat izan zen: urte hartan, 1967an, Mañaria herrian *Kirikiñoren* omenez Gerediagak jarriko zuen eskultura.

Urte hartan, Valentin Lasuen zen Gerediaga elkartearen burua eta Jose Luis Lizundia, idazkaria. Horregatik, elkartearen ohorezko lehendakaria den Valentin Lasuen jaunak, Vicente Larreak, ospakizun honetarako beren beregi egindako eta, dakigunez, moldea deseginda dagoelako, errepika ezinezko izango den irudia emango dizu.

\* \* \*

### Dantza emanaldia (Salbadoreko zelaian)

Irteeran txistulariek *Alkate soñua* joko dute.

### 1. Agurra

Dantza hau, Kriskitin taldekoek, biolinez lagundurik dantzatuko dute.

## 2. Dantzari dantza

Euskal Herri osoan hain errotua den *Ezpata Dantza* edo *Dantzari Dantza*, badakigu jatorriz Durangerrikoa dela. Bederatzi dantza desberdinez osatutako dantza sorta da: *Agintariena*, *Zortzinakoa*, *Ezpata txikiak*, *Banangoa*, *Binangoa*, *Ezpata nagusiak*, *Launangoa*, *Palu jokoa* eta *Txontxongiloa*.

Herriko jai nagusietan eta ospakizun garrantzitsuetan agintarien aurrean dantzatu ohi ziren, herriko bandera ere eramaten zutelarik.

Gaurko hau ere, ospakizun historikoa da, Durangerriko lehen Euskaltzainaren izendapen eguna ospatzen dugulako Merinaldeko Alkate eta gainontzeko agintariekin batera.

Abadiño, Garai, Iurreta, Izurtza eta Mañariko dantzarietaz osatutako dantza taldeak eskainiko dizkigu: *Agintariena*, *Ezpata joku txikia*, *Banangoa*.

*Banangoa*, antzina egiten zutenez, koplak doinuz (lagunduta) dantzatuko dute.

## 3. Platillu soñua

Karl Wilhmen von Humboldt, Lizundiaren esanetan «vascología» edo euskalaritzan, nazioarte mailan, lehen maisua izan zena, 1801.ean izan zen bigarren bidaiari hartan, Durangoko dantzarietaz, *Gorpusti* jaietan (Durangoko jai nagusiak sasoi hartan) dantzatzen zuten *brokel* edo *ezkutu dantza* ikusi eta deskribatu zuen besteak beste.

Kriskitin taldekoek, 1999.ean berreskuratu zuten *platillu* dantza hau. Humboldt-en deskribapena jarraituz eta berak batutako musikagaz, 200 urtez ahaztuta egon den arren, Iñaki Irigoienek laguntzagaz eta Jose Luis Lizundiaren ekarpenari esker, gaur, posible izango dugu *platilluen* soinuagaz gozatzea, Euskaltzaindiaren eta Diputazioaren artxibategian aurki daiteke.

Egun handi honetan esker onez gatzokizu Kriskitin taldekook.